

artelka

**Garamatzan
esklabotza**



Apirilak
9|10|11|12|13
—Legutio



EUSKAL HERRIKO GAZTE

SOZIALISTON TOPAGUNEA

antolakuntzaren potentzia

12 ELKARRIZKETA

Jessica Guzman eta Axier Nuñez

AUKERA BAKARREZ



36 ERREPORTAJEA

Juanjo Basterra

ZENBAKIAK ETA ZENBAKITU EZIN DIRENAK



58 KOLABORAZIOA

Aitor Martinez

SOLDATAREN DESARTIKULAZIO POLITIKOA HELBURU



4 EDITORIALA INPOTENTZIARI IZENA ETA EZINA

6 IKUSPUNTUA

Ane Ibarzabal

GAZTE PROBLEMATIKAREN ULERKERARAKO OINARRIZKO APUNTEAK

9 KOIUNTURA

Dani Askunze

BURUJABETZA ALDAKETA SOZIALERAKO: BIDE NAZIONALA ERREFORMARI

26 IKUSPUNTUA

Paul Beitia

KULTURAREN MERKATUA ETA MERKATUAREN KULTURA

30 KOIUNTURA

Manex Gurrutxaga

EZTABAIDA AMAIGABEAK

32 IKUSPUNTUA

Amets Sarasua

EMAKUME TALDEAK ETA AUTOLAGUNTZA

48 IKUSPUNTUA

Alain Arruti

ESPAZIOAREN GAIKEKO KONTROLAZ

51 KOIUNTURA

Beñat Aldalur

BEHARRIZANA ETA KONTINGENTZIA. EZKER ABERTZALEAREN ADIBIDEA

53 IKUSPUNTUA

Martin Goitiandia

DIRURIK GABEKO LEGEA EZ DA LEGEZKOA

55 IKUSPUNTUA

Aitor Bizkarra

“UTIKAN EUSKADI SARIAK” ALA KULTURAREN ANTOLAKUNTZA ANTAGONIKOA

62 IKUSPUNTUA

Maddi Sarasua

OHOLTZA AZPIKO ARTEAZ

66 KOIUNTURA

Sabin Aranburu

ABERASTASUNAREN BANAKETA, NAZIOARTEKO DIRU FUNTSA ETA SOZIALDEMOKRAZIA

69 IKUSPUNTUA

Adam Radomski

GREBA OROKORRAK: ERREALITATEAREN ETA ERRETORIKAREN ARTEAN

Inpotentziari izena eta ezina

EDITORIALA

Ez dugu ezkutatuko: poztasunez betetzen gaitu GEDAR LANGILE KAZETAREN ibilbide publikoa hasi eta hamar hilabetera ukigarriak diren orri hauek eskuetan eduki ahal izateak. Baita hitzon atzean zu zaudela sentitzea ere. Denbora bizi joan da gurean, eta horrek ez du etenik. Gauza handiak ditugu esku artean.

Lehenengo ale honetan datozen hilabeteetan helduko denaren aurrerapena aurkituko duzue. ARTEKA hilabetekari berezia bihurtzea dugu xede, gero eta mamitsuagoa eta eduki berritzailea gero eta gehiago jasoko duena. Une honetan, ordea, hauxe da dastatzeko duguna. Hilero gai batek hartuko du zentralitatea, eta berorri helduko diogu formatu desberdinetan: erreportajeak, kronikak, elkarrizketak edota kolaborazioak. Horrekin batera webgunean argitaratutako ikuspuntuak eta koiuntura politikoaren analisiak jasoko ditugu, hilabetekari bakoitzaren gaiari sarrera egingo dion Editorialarekin batera. GEDAR eta Mugimendu Sozialista bere uneko zirkulutik harago bultzatzeko jaio da ARTEKA; baina ziur datozen hilabeteetan hori eta gehiago ere badela baieztatzeko egoeran aurkituko garela.

Edukia lantzeko formatu desberdinek ezinbestean edukiari ertz eta ikuspuntu desberdinetatik heltzea ekarriko dute. ARTEKAK emango du sintesi politikorako aukera, jakina, baina baita helmuga horretara heltzeko beharrezkoak diren kontraesanen garapena eskaini ere. Izan ere, ez dugu ulertzen Mugimendu Sozialistaren balizko garapenik, ez bada masa mugimendu sozialistaren lehen kimu den langile mugimenduaren gaitasunen antolakuntza gorakorrik gabe. Hari eman diogu hitza GEDAR LANGILE KAZETAN, eta haren hitza indartu nahi

dugu ARTEKA hilabetekariaren bitartez: ez langile mugimendua zein langile klasea zapaltzaileen aurreko inpotentzian betikotzeko edo akaso borroka amaigabe batetara kondenatzeko; ezta ezeztatu nahi dugun klase soziala goratzeko ere, berauek, langile klasea eta bere mugimendua, azken limiterraino eramateko baizik, bere kontraesanen aurrean jartzeko eta ebazpen iraultzaile bidez Mugimendu Sozialistaren garapen kualitatiboa bermatzeko; proletalgoaren defentsara helburu duen mugimendu ekonomiko partziala osotasunari heltzen dion mugimendu politiko bilakatzeko. Zentzu horretan, ARTEKAK tresna bat gehiago izan nahi du Mugimendu Sozialistaren jardunean.

Jomuga horretara bidean hartzen dute zentzua, bada, edukia lantzeko formatu desberdinek, zeinak edukiaren nolakotasun anitzaren adierazpenak baino ez diren. Alde batetik, protagonisten bizipenak ezagutu nahi ditugu, gai desberdinen inguruan. Horretarako baliatuko ditugu elkarrizketak edota erreportajeak. Azken horiek, gainera, kazetaritza lanaren esparruan murgiltzera eramango gaituzte, ikerketarenean, gaiaren inguruko datu bilketa baliatuta. Horien bitartez Mugimendu Sozialistaren praktika politikoaren oinarri den errealitate sozialaren kontraesanak azaleratzea bilatuko dugu, proletalgoaren bizitzaren gordintasuna lehen lerrora ekarri. Bestetik, ordea, edukiaren inguruko irakurketa zabalagoak eskaintzeko aukera izango dugu gaiaren inguruan arituko diren kolaboratzaileen ekarpenaren bitartez. Ez da makala erronka, helburua errealitate berehalakoena testuinguruan jartzea baita; hau da, proletalgoaren miseria klase menderakuntza estrategikoarekin harremanetan jartzea.

Azkenik, eduki horiei guztiei sarbidea eta zentzu estrategikoa emango dien Editoriala gehitu behar zaie, orain esku artean dugun hau bera.

Lehenengo ale honetan SOLDATA izan dugu hizpide. Gai zabala da, zeharkakoa. Hala ere, zenbait esparrutan zentratzea erabaki dugu. Alde batetik, egoera ekonomikoaren inguruko zertzelada orokorrak aztertu ditugu, Juanjo Basterrak egindako erreportajearen bidez. Bestetik, urte luzez hainbat etxetan barne-langile gisa aritutako Jessica Guzman eta Itaroa saltoki-guneko langile bat, Axier Nuñez, elkarriketatu ditugu; bai haien lan baldintza ekonomikoen inguruan galdetzeko, nola haiekin harremanean agertzen diren aukera politikoak aztertzeke ere. Azkenik, Aitor Martinezek soldataren kontzeptuaren inguruan idatzitako artikuluan, soldataren funtzio politikoari heldu diogu argi ebazteko: soldata langile klasea menderatzeko tresna politikoa da, eta ez sinpleki eta soilik klase botere ekonomikoa azaltzen duen kategoria.

Erreportajearen, galdera bat luzatzen du Juanjo Basterrak: soldata eta pentsio baxuak diru eskasiaren ondorio ote dira? Argi eta garbi ebazteko: ez, ez dira horren ondorio, dirua egon badago. Bada, ezinbestean, beste mekanismo baten logikak azaldu behar du langile klasearen egoera: ez ekoizteko gaitasun ezak, zeina, modu sinplean ebaztuta, diru kantitatean adierazten den, ekoiztutako produktuaren balioa dirutan proiektatuz –betiere optika kapitalista sinplea onartuta: dirua merkantziaren lehenengo transformazio gisa eta, beraz, merkantzien forma duen aberastasunaren proiektzio ideal gisa–; diruaren –eta ekoizpenaren– kapital izaerak baizik. Soilik bide horretatik uler daiteke proletalgoaren gaineko sarraski etengabea, kapitalismoaren

zaborteira ematen duen atzeko atetik ezinbesteko behar biologikoak asetzeko kontsumo-gaiak suntsitzen diren bitartean.

Horrek, ordea, ez du esan nahi proletalgoa sarraskitik kanpo bizi daitekeenik. Hori da bere existentzia modua. Ezin dugu esan, bada, proletalgoak modu orokorrean bere uneko behar sozialak asebeteta ez dituenik, ez baititu berak behar horiek zehazten, eta moldagarriak baitira balorizazio prozesuaren eskakizunen arabera. Izan ere bertan aurkitzen da arazoaren muina: proletalgoa gaitasun sozial eta politikorik gabeko klasea da, klase menderatzailearen bitartekoa, haren mesedera moldatua. Proletalgoa aurrerapen historiko orok ekar lezakeen onuratik kanpo geratzen den klasea da, historia etenda duen klasea.


Proletalgoaren miseria soilik modu erlatibo horretan definitu daiteke, eta ez pobrezia ekonomiko-sozialaren termino absolutuetan. Sarraskiak, ordea, bere oreka mugak gainditzen ditu erreproduktzio biologikorako baldintzak ere suntsitzen dituenean, hots, proletalgoaren biziraupena kolokan jartzen duenean. Gosea eta desoreka estrukturalak dira proletalgoaren haragitan, hala behar dute ekonomia jardun normalizatuaz hitz egin ahal izateko, horixe baita, hain zuzen ere, ekonomia kapitalista, klase zapalkuntzaren erreproduktzio jarraitua.

Inpotentzia horren inguruan ere mintzatu gara elkarriketan eta bereziki horregatik jo dugu protagonista horiengana, gaitasun politiko oro ukatua zaielako, eta eskaintzen zaien bakarria amaierarik gabeko kondena delako. Akaso ogi apurrekin apainduta, are latzagoa egiten duena. /



GAZTE PROBLEMATIKAREN ULERKERARAKO OINARRIZKO APUNTEAK

Zaila da paper txuriaren aurrean eseri eta hitzei forma ematen hastea. Iragan den urteari eta datorrenari begira, igaro ditugunez eta etortzear daudenez aritzea. Baina hitz soltez, urte honetan behintzat, gazte problematikaz arituko natzaizue, edo saiatuko naiz behintzat. Ez espero testu akademikorik edo akatsik gabeko testurik, esperientzia militantetik jasotako ondorioetatik eta kideen bizipen eta eskarmentuetatik idatzitako testuak izango baitira; ekarpen xumeak egiteko saiakerak, ez besterik.



Gazte problematika abordatzeko helburuaz solasean arituko natzaizue, alegia, fenomeno desberdinez eta gertakari anitzez. Horien ulerkerarako baina, argi utzi nahiko nuke lehenda-bizi, geroko testu guztien oinarri izango denaren muina, datozen testuek ideia horren inguruan orbitatuko baitute. Kontzepzio hegemonikoetatik haratago, gaztetasunaren ulerkera politikoaz eta gazte problematikaren funtzioez arituko naiz.

Gazteriaren definizio edo ulerkera politikoa azalduko dudala diot, gazteriaren ulerkera despolitizatu bat dagoelako, hegemonikoa dena. Kontzeptu hegemoniko honen arabera, gazteria 16-29 urte bitartean kokatzen den bizi zikloa litzateke. Dimentsio sozial eta biologikoa duen bizi ziklo horri, ezaugarri kultural eta soziologiko batzuk dagozkio, berezkoak zaizkionak eta ziklo horren kausalak direnak. Badi-ra ondorioztatu daitezkeen ezaugarri komunak eta,

hortaz, arazo komunak dituen kolektiboa osatuko zuen; ustez, ezaugarri horiek ez dituen eta, kontrapartidan, arazo horiek ez dituen helduen kolektiboa aurkaritzan. Badirudi honen emaitza litzatekeela gazte problematika; helduen boterearen ondorio bat. Hau da, helduen eta gazteon arteko botere harremanetik ondorioztatzen den auzi bat omen da, helduen nahien arabeko gazteon manipulazioaren ondoriozko arazo-multzo bat edo.

Analisi hori kontzepzio desklasatuen ondorio da, izan ere, gazteriaren kontzeptua abstraitu eta botere burgesa eta klase zapalkuntza analisitik kanpo uzten ditu. Hau da, boterea indar dinamika errealetatik kanpo kokatzen du, helduengan kasu honetan, eta ez boterea errealki ardazten duen botere burgesean. Burgesiak determinatzen eta egituratzen baititu indar dinamika errealak, horren egituraketaren bidez gizartearen funtzionamendua eta pau-

Irizpide sozial horiek kapitalaren nahi edo beharrizanen arabera ebatziak direnez, auzi biologikoa auzi sozialari azpiratuta agertzen zaigu, kolektibo horren sorreran determinantea dena ez baita adina, baizik eta betetzen duen funtzio soziala

ta sozialak determinatzen dituelarik. Irizpide sozial horiek kapitalaren nahi edo beharrizanen arabera ebatziak direnez, auzi biologikoa auzi sozialari azpiratuta agertzen zaigu, kolektibo horren sorreran determinantea dena ez baita adina, baizik eta betetzen duen funtzio soziala. Helduek, bada, ez lukete botere modalitate bat osatuko, baizik eta, tarteka, figura diziplinario edo burgesiaren eta gazte langileon arteko mediatore funtzioa baizik.

Guk gazteria termino desklasatu horri, hortaz, gazte langilearen terminoa aurkaratzen diogu. Izan ere, burgesiak sortzen duen gazteriarren forma soziala gazteri langilean gorpuzten da, berau baita gazte problematika pairatu eta burgesiarentzat funtzio estrategikoak betetzen dituen.

Burgesiarentzat funtzio estrategikoak betetzen dituela esaten dugunean, gazteria langileak, subjektibitate bat den heinean, botere burgesa handitzeko eginkizuna duela esan nahi dugu. Funtzio-multzo hori bi logika orokorren baitan barnebildu daiteke: ekonomikoa eta despolitizatzailea. Gazteriari dagozkion baldintza ekonomikoak, lan baldintzen ondorio eta bizi baldintzen errudun direnak instituzio ezberdinen bitartez erregulatzen dira, eta berdina gertatzen da gazteriarren despolitizazioarekin, kontrol sozialaren, hezkuntzaren edo masa kulturaren bidez ematen baita.

Logika orokor horiek, gure egunerokotasunean antzemateko zailak izaten dira, baina erraz irudikatu daitezke fenomeno konkretuekin. Auzi ekonomikoa irudiztatzeke, ABLEak (Aldi Baterako Lanaldi Enpresak) eta horiek ekartzen diguten etengabeko mobilitate eta ezegonkortasunaren auzia dago, langabezia tasa ikaragarria edo praktiken fenomenoak, esaterako. Bistakoak diren auzi horiek logika orokor

baten baitan ulertu behar ditugu, ez fenomeno isolatu bezala, ezta halabeharrez igaro beharreko fase bateko baldintza gisa ere, baizik eta instituzio konkretu batean gorpuzten diren eta helburu zehatz bati erantzuten dieten auzi gisa. Helburu hori burgesiak ahalik eta etekin handiena bereganatzea litzateke; soldata baxuen bidez, ordaindu gabeko eta praktika forma hartzen duen lan indarrarekin edo oporren nahiz bajen ordaintzea saihestuta. Horrela, Gazte Lan Merkatua deituko diodan instituzioa gorpuzten da. Horri hertsiki lotuta ageri zaizkigu gazteen gaitasun ekonomikoek dakartzaten bizi baldintza proletarioak: etxebizitza eskuratzeko ezintasuna, baita elikadura edo garraioa ordaintzeko ere, familiak osatzen duen unitate ekonomikoari dependentzia absolutua, ikasketa prozesu etengabea...

Beste logika orokor batean egituratzen dena gazteria subjektu despolitiko gisa ekoiztearena da, gazte masa kultura jakin bat produzitearena. Jaialdi kapitalista, drogen kontsumoa, arte eredu dekadentea edo sare sozialei lotuta egotea lirateke fenomeno horren adibide batzuk. Horiek ezaugarri jakinak eragiten ditu gazteriarengan; idiotizazioa edota infantilizazioa, kasu. Masa akritikoak ekoiztuz borondate sozialista diluitzea lortzen da, eta antolakuntza posible baterako aukerak desagerrarazten dira.

Funtzio inmediato horiez gain, epe luzerako perspektibaz erreparatzen badiogu, gazteriak kapitalismoari beharrezko zaion modernizaziorako interbentzio subjektu gisa jokatzen duela ikus genezake, gazterian interbenitzeak etorkizuneko langileria ezaugarritzea eragiten duelako, eta datozen urteetako baldintzak ezartzen direlako. Horregatik, esentzian, gazte problematika klase problematika da, eta guztion erantzukizuna da berau aboratzeko, etorkizuneko baldintza ekonomiko eta soziologikoen inposizioa ekiditea xede.

Gutxi gorabehera, horiek dira argitu eta ordenatu beharrean nagoen kontzeptu edo auzien multzoa, datozen hilabeteetako oinarriak izango direnak. Absurdoegia litzateke ukatzea kazeta honetan idaztearen erronkak suposatzen duen bertigoia niretzat; esku izerdituak, lo etena eta urdaileko marapiloak ezkutatzeko alperrik da. Baina indarrez helduko diot gazteria langileriarren auziari, auzi honek langileriarren independentzian duen garrantzia argi uzteko, burgesiarentzako baliagarri zaion subjektibitatearen ezaugarriak azalarazteko eta burgesiarekin bateraezina den subjektibitate bat garatzeko beharraz eztabaidatzeko, baina batez ere, gazte belaunaldiak prozesu sozialistara batzeko arrazoiak defendatzeko.

Izango dira ikuspuntu askotarako testu berriak! /

Burujabetza aldaketa sozialerako: bide nazionala erreformari

Azken hilabeteetan zehar zenbait sektorek Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak urtarrilaren 30erako deituriko Greba Orokorren harira zenbait kritika eta ezinegon plazaratu dituzte. Plan-teamenduaren forma burokratikoari dagozkionak, greba honen egokitasun eta momentuari dagozkionak, inposatutako denbora eta antolakuntzari, ageriko partidismoari, aldarrikapen zehatzei dagozkienak... Ez diet aipaturiko puntu hauei helduko, esparru militantean eztabaidagai baitaude; aldi berean, grebara deiturikoen artean ezjakintasuna eta axolagabetasuna dira nagusi. Horregatik guztiagatik, mobilizazio

honen gainera eduki politikoa aztertzeraz nator, grebaren deialdi hutsetik harago. Eta bi gako dira giltzarri auzia argi ulertzeko: *duintasuna* kapitalismoaren baitako termino ekonomikoetan aldarrikatzea -hau da, birbanatze terminoetan-, eta aipaturiko *eraldaketa soziala* gauzatzeko subiranotasuna onartzea aurre-baldintza modura. Horrenbestez, greba hau klase ertainaren programa politikoan txertatutako beste ekimen baten modura planteatzen dut, edo behintzat fakzio batena, egun Euskal Herrian programa horren defentsa dinamismo handienaz gidatzen duenarena, hain zuzen.

Horretarako azalpen laburren bat

edo beste emango dut. Hasteko, klase ertainaz dihardugunean, ez gabiltza bere horretan klase sozial bati buruz hizketan. Klase estratu ezberdinek osaturiko konglomeratu batez baizik – langile klasearen goi geruza aristokratikoa eta burgesia txikia- erdibideko posizio sozial batean oinarrituz, eta batez ere, funtzio politiko konkretu batean oinarrituz -klase antagonismoa neutralizatu eta harmonia bihurtzea (1)- burgesiaren sostengu-bloke modura. Bigarrenik, krisiaz eta klase ertainaren deskonposaketaz hitz egiterako orduan, ez dugu honen desagerpen hipotetikoaren inguruko baieztapen definitiborik egin behar, eta prozesua joera

Onartu behar dugu klase ertainak bizirauteko duen aukera geruza hori gero eta minoritarioagoa izatean datzala: jendez hustu behar da ontzia, urak gain hartu baino lehen

terminoetan ulertu behar genuke. Eta horretarako onartu behar dugu klase ertainak bizirauteko duen aukera geruza hori gero eta minoritarioagoa izatean datzala: jendez hustu behar da ontzia, urak gain hartu baino lehen. Izan ere, ez diogu halako garrantzia eman behar aurreikusteari ea Ongizate estatuaren paktu sozialaren birredizio bat egingarria den gaur egun edo zeintzuk diren erreformarako egiazko marjinak; kontrara, garrantzitsuen proiektu politiko horren errebindazioa –gaur inoiz baino gehiago- proletariotzaren aurkako tresna dela ulertzea da.

Europako sozialdemokraziako alderdi historikoek sozioliberalismorantz emandako biraren ondoren, ezkerreza zeuden haiek –hainbat tradizioatik zetozenak- hutsik geratutako tokia betetzen saiatu dira, sozialdemokrazioaren diskurtsoaren aribidean bada ere, haiek ordeztuz. Aldi berean, nahiz nazionalismoa eta sozialdemokrazioaren estatuari gorazarrea ez diren inolako berritasun historikoa, egungo neosozialdemokrazioak gogotsu beretu ditu, nazioarteko finantzen boterearen aurrean izuak hartuta dauden klase ertain gero eta urriagoak ezkutatzen dituen atzera-egite nazionalaren eskutik (2). Etorkizun beltz honen aurrean, klase ertainak salbazioa *Leviatán* zuhurraren esku uzten du, babes dezan. Ordea, klase ertainarentzat Estatu

ez da herria mendean izango duen kanpoko instantzia hutsa. Neurri batean, klase ertaina jada bada Estatu: alderdiko aparatua, burokrazia sindikala, akademia postmodernoa, funtzionario-masa bera... neurri egindako kapitalismo nazionalaren eta diruz lagundutako bake sozialaren urte loriatsuen nostalgiazko testuinguru honetan, egungo ezkerre subiranista sutsua da. Eta subiranismo hau ez da klase ertain horrek Estatuan (burgesa) duen egitekoaren eta elkar-partaidetzaren –mendekoa beti- aldarria baizik. Eta hementxe uztartzen ditugu hasieran aipatu elementuak: eskuratu beharreko *duintasuna* termino ekonomikoetan integrazio politikoarekin batera egingo da eta bijilatua izango da, klaseen arteko borrokan bitartekari izaten utziko dioten botere partekatuko kuota ezinbestekoen bidez, eta gainera, onura ateratzen hortik. Hortaz ari da klase ertaina *demokratizazioaz* ari denean, kontuan hartua izan behar duela.

Nola mamitzen da hau guztia gure ekosistema politiko berezian? Klase ertainaren bloke politikoa ez da guztiz monolitikoa eta hainbat joera erakusten ditu bere baitan. Guri dago-kigunez, nagusiki bi bereiziko nituzke: *ezker soberanista euskalduna eta ezker soberanista espainiarra*. Lehenengoa egungo *post-ezker* abertzaleak osatzen du, Ezker Abertzale Ofizialista-

ren inguruan antolatua dagoena. Eta bigarrena, belaunaldi eurokomunista eta populisten arteko Unidas Podemos hitzarmenezko ezkontzaren bueltan antolatua. Izenak adierazten duen modura, bi multzoak klase ertainaren programa politikoaren funtsean bat datoz, aipatutako subiranismoaren gidaritzapean eta bere oportunitatean eta posibilitatean gauzatua ez ezik, egungo moda diskurtsibo hegemonistatik edertua. Gainera, egun Europako Ezkerre Alderdian batzen da inolako eragozpenik gabe. Bereizten dituen da haien programa ideala gauzatzeko marko territoriala, eta hau ez da huskeria: euskal estatua hipotesi oso gertagarri bat da oraindik, eta estatua espainola da lan errealerako markoa biezat. Greba kontestuan bi fakzioen tirabiren eszenifikazioa ikusi dugu, CCOOren binkulatutako edo Podemos Euskadiko pentsiodunen itsusikeriak medio. Baina gobernuko arduretara berriki batu den ezker espainolaren analisia beste baterako utziko dugu.

Esan dut euskal ezker subiranistak bere proiektu ideala planteatu zuela –*Estatu duina, Berdinen arteko errepublika*– Euskal Estatu independente baten aurretiazko lorpen modura, zeina, beste alde batetik, nabarmen kontrastatutako baita praktikoki Espainiako sistema politikoan asimilatzearekin. Alabaina, erdi-mailako klasearen pro-

Egia da Euskal Herrian klase ertainaren programa egingarriagoa dela: erdi-mailako klase nazionalaren hipertrofiak indar-korrelazioan abantailazko posizioa ematen dio

Argi utzi behar da erdi-mailako klaseak defendatzen duen programa politikoak balio duela erasotzeko, bai, baina ez burgesia, proletalgoa bera baino

grama politikoaren euskal konkrezioa ez da apeta hutsezko kontua, ezta kasualitatea ere; kontrara, oinarri material esanguratsua du. Aldi berean, Europako bloke inperialistaren muinean gero eta agerikoagoa da bi azpiblokeren banaketa: Europaren Iparraldea eta Hegoaldea. Hala, Ipar-Hego marko horretan, industria jakinen biziraupena edo Iparraldeko ongizate Estatuen tamaina bera Hegoaldeko herrialdeak eraistearen ondorio da. Eta Euskal Herriak hartzen duen tokia kontraesankorra da; bi azpiblokeen artean dago. Erdi-mailako klasea txikitzen ari den aldetik (nahiz eta termino konparatiboetan kuantitatiboki erabat esanguratsua izan duen biztanle aldetik), klase horrek kolokan ikusten du bere posizioa, lanaren egungo banaketa internazionalak Europaren Hegoaldean esleitu dion tokia dela medio. Testuinguru hori da, hain zuzen, Espainiatik “alde egitea” behartzat hartzen duena, alde egitea berme modura ikusten duena klase ertaina “oasi” partikularra iraunarazteko edota hedatzeko (3). Hori dela eta, gordina izanagatik ere, egia da Euskal Herrian klase ertainaren programa egingarriagoa dela: erdi-mailako klase nazionalaren hipertrofiak indar-korrelazioan abantailazko posizioa ematen dio. Orduan, lehiaren logikari jarraikiz, pobretutako Hegoaldearen lasta botatzea eta Iparraldeko garaileengana jotzea erabakitzen du.

Konparazioa Alemaniarekin egitea, eta ez Espainiarekin, beste behin, ez da kasualitate hutsa (4).

Horren ondorio da sozial-chauvinismo eta eskusibismo lotsagabeenak ere konplexurik gabe defendatzea (5). Klase-estratu nazional baten berekoikeria muturrekoena erakusten du, eta, bere posizioak duen arriskuaren jakitun, bere posizioa salbatu nahi du gero eta proletarizatuago dauden sektoreen bizkarretik, zeinak horren ondorioz, kanporatuak izango baitira barne-mailan (marko nazionallean), zein kanpo-mailan (marko internazionallean).

Behin eta berriz oroitarazi behar da paktu sozialak -iraultza sozialistaren betiko etsai deklaratu modura- ekarri dituen irakaspen historikoak, eta bake soziala odolez eraiki dela: erreformismoak eskuak odoleztatuak dituela haren ondorioz. Azpimarratu beharrekoa da paktu sozialak egun duen konkrezioa inoiz baino antiproletarioagoa dela, hori posible baldin bada. Horregatik, argi utzi behar da erdi-mailako klaseak defendatzen duen programa politikoak balio duela erasotzeko, bai, baina ez burgesia, proletalgoa bera baino. Eta hori halaxe ulertu behar dugu. /

1. “El carácter peculiar de la socialdemocracia consiste [...]” Karl Marx (1851), El 18 Brumario de Luis Bonaparte
2. Miquel Amorós (1998), El Partido del Estado
3. Iñaki soto (2019), “Gurean ezkerren proiektu alternatiboa bideragarria da, beste toki gehiengatan ez den maila batean”. Erria 3. zkia, 26 orr. Iñaki Soto (2019), ERRIA 3.
4. Sortu (2016), Euskal Herriaren bestelako begirada ekonomikoa eta soziala: Independentzia vs Langabezia eta prekariedadea, 3. zkia.
5. Lenin (1915), “El socialchovinismo es el oportunismo más acabado”. El socialismo y la guerra




ELKARRIZKETA

Jessica Guzman / *Malen Etxea*

Axier Nuñez / *Yelmoren
zinema-aretoko langilea*

Aukera bakarrez



Garamatzan esklabotza. Erori gareneko inertzia, egunez egun biziara. Soldatapeko lan modura gorpuztutako galernan, arnasa hartu nahian, badira artekei aurpegia jarri dieten kideak. Hona hemen bi testigantza.

“Bakarrik egongo ez direla jakiteak egiten du haiek ausartzea eta egoera aldatzeko indarra izatea”

Lau pareten artean, indarrez herrestatzen duen zurrumbilo suntsitzaile baten erdian harrapatuta ikusi izan du bere burua Jessica Guzmanek (Santiago de Chile, 1962). Etxeko langile egoiliarra izan da urte luzez, eta gogoan iltzatuta izango ditu beti lanaldi amaigabeak, eta alderantzizko norabidea hartu duten erabateko mendekotasunak. Lana, etxebizitza, denboraren nozioa, jabetza; ezerezaren muga lausoetan urtuta eta gaindituta ikusi ditu egunez egun.

Egoitza Zumaian (Gipuzkoa) duen Malen Etxea emakume immigranteen elkarteko kidea da Guzman, eta buru-belarri dihardu barneko langileek bizi duten parada lazgarriari argia igortzen, eta behargin horiei guztiei ahotsa jartzen. Argi itsugarria, eta ahots ozen eta mingarria.

Lehenik eta behin, hitz egiguzu Jessicari buruz. Nola barruratu zen soldatapeko lanaren dinamikan eta, zehazki, nola hasi zen etxeko langile egoiliar modura jarduten?

Duela 12 urte lur hartu nuen hemen. Nire seme-alabak hazita zeuden ordu-rako, haien hezkuntza eta bestelako beharrak ordaindu behar nituen, eta Txilen askotariko lanetan aritu arren, iritsi zen une bat non jada ez nuen lanik aurkitzen. Lehengusina bat nuen Euskal Herrian bizitzen, eta etortzeko esan zidan. Halaxe egin nuen. Nire fantasien arabera, bi urte baino ez nituen hemen egingo; diru pixka bat lortu, eta Txilera

itzuliko nintzen. Etortzen diren emakume guztiak bezala etorri nintzen: ilusio askorekin.

Nire buruan, lan bat nuen nire zain Euskal Herrian, esan zidatenaren arabera, eskari handia baitzegoen adineko pertsonak zaintzeko lanetan eta etxeko lanetan. Hona datozenek, badakite zein lan mota egitera datozen. Iritsi nintzen, eta hiru egunera, lanean nengoen. Garai hartan bestelakoa zen legedia, eta ez zegoen hiru urtera arte itxaron beharrik paperak eskatu ahal izateko; nahikoa zen laneko kontratua izanda. Hasieran ez nintzen etxeko langile egoiliar modura hasi, baina une batetik aurrera, kontratua behar nuelako





hasi nintzen horretan lanean. Aldaketa bortitza izan zen. Ordutik, etenaldiak izan arren, barneko langilea izan naiz hainbat etxebizitzatan, urte luzez.

Zein izan zen sektorean barneratzean topatu zenuen errealitatea? Zein eragin du, zuen kasuan bezala, lana eta bizitokia eskutik joateak?

Urte luzez luzatzen den tranpa baten barruan aurkitzen zara bat-batean. Zure etxera dirua bidali behar duzu derri gorrez, eta lan miserableak baldin badira ere, onartu egiten dituzu azkenean. Egoiliar modura nuen lanpostu bat galdu nuen hemen duela urte batzuk; une batetik bestera, lanik gabe geratu nintzen, eta beraz, etxerik gabe. Ezer gabe.

Nire lagunak laguntzari esker biziraun nuen, jangela batean bizitzen. Hilean 500 euroren truke etxe batean berriro barneko langile hasteko aukera suertatu zitzaidan, onartu egin behar izan nuen. Zirkulu batean harapatuta ikusi nuen nire burua: diru oso gutxiengatik lanean, kontraturik gabe, une batzuetan paperik gabe -kontraturik gabe egotean galdu egiten nituen-, baina, hortik atera ezinik. Garratzak dira parez pare topatzen dituzun egoera asko, muturrekoak; inoiz biziko ez zenituela uste zenuen, baina gertatzen zaizkizu.

Hilabetez hilabete eta urtez urte

bizitakoek hausnartzera eraman ninduten. Gogoratzen dut, egoiliar modura ari nintzen urte batean, familia enplegatzaileak nahi zuela nik Eguberri egunean zein Urte Berri egunean ere lan egitea. Nik erantzun nion langile bat nintzela, ordutegi bat nuela, egutegi bat, eta hori errespetatzeko eskatu nion. Kaleratu egin ninduten, Gabonetan. Nire egoerari erreparatu nion, eta pentsatu nuen: niri hau gertatzen bazait, zein izango da paperik edo lagunik ez duten emakume langileen kasua? Nolakoa izango da zorrez itota daudelako hemendik atera ezin dutenen egoera?

Zein dira, orokorrean, etxeko langile egoiliarrek jasan behar dituzten lan eta bizi baldintzak?

Arazo larrienetakoak erroldatzeari eta Immigrazio Legeari lotutakoak dira. Zailtasunak egon ohi dira erroldatzea lortzeko, eta horren mende gaude; errolda agiririk ez badugu, ez gara existitzen hemen. Emakume ikusezinak garela dirudi, baina hemen gaude. Immigrazio Legeak, paperak eskuratzeke, derrigortzen zaitu gutxienez hiru urtez bertan bizitzera. Horrek eragiten duen bakarra da, hiru urtez, emakume horiek are lan miserableagoak onartu behar izatea; lortzen duen bakarra da, ia dohainik jarduten duten hamaika esklabo sortzea, klandestinoak. Dena

“Beti gaude trantsizioan, beti gaudelako lan bila”

“Jasanezina dena jasaten duzu, eta horrek ez zaitu otzan egiten, baina egoera onartzen duzu”

den, paperak behar bezala izanda ere, ez da askoz hobia egoera. Etengabe bilatzen dugu lana. Beti gaude trantsizioan, beti gaudelako lan bila.

Jende askok ez du ulertzen langile egoiliarrek egiten dutena soldatapeko lan bat dela. Langileak gara eta ezarritako ordutegi zein egutegiak izan behar ditugu, baita eskubideak ere. Barne langileek, esaterako, atsedenerako eskubiderik ez dute; gehienez, egunean bi ordu dituzte libre, eta askok, asteke zazpi egunetan egiten dute lan. Eguneroko, 22 orduz. Egunean zortzi ordu lan egitea gogorra bada, imajinatu 22 ordu etxe batean sartuta. Zaurgarritasuna ikaragarria da, egun osoa etxean bakartuta ematen baduzu; aisialdirik gabe, bizitza sozial edo afektiborik gabe. Ez dakit zein zentzu komun klase falta den, ulertzeko hori ezin duela jasan pertsona batek. Egiten da, baina oso gogorra da.

Egoiliarrek zaindutako pertsonen artean, askok dituzte askotariko gaitzak, dementziak kasu, eta esnatu egiten dira gauean zehar. Beraz, hala egin behar dute egoiliarrek ere. Eta hurrengo egunean berriro jaiki behar dute lane-rako, berriro egun osoa lanean egiteko. Epe luzera, horrek eragina du langileen osasunean: nahasteak sortzen dira buruan, neurosiak, erotzen hasten zara inor ohartu gabe. Gainera, egoiliar batzuek logela propioa ere ez dute eta zaintzen dituzten pertsonekin edo so-

fan egin behar dute lo. Lo egiteko edota intimitaterako eskubiderik ere ez dute.

Bestalde, familia enplegatzaile askok, medikuarengana edota Atzerritartasun Bulegora joateko oztopo handiak jartzen dituzte, derrigorrezko hitzorduak izanik ere. Askotan, guk geuk ordaindu behar izan diogu ordezkari bati, medikuarengana edota paperekin izapideak egitera joan ahal izateko. Ez gara jabetza bat, nahi duten denboran gehiegikeriaz erabili dezaketena. Zure etxean jarduten duen langile egoiliarra ez da zure altzari bat. Langile bat da.

Nora edo norengana jotzen duzue langile egoiliarrek halako egoera gogorren aurrean?

Bakartze handia bizi dugu sektorean. Emakume atzerritar asko eta asko datoz bakarrik hona eta bakarrik jarraitzen dute; ez daukate babestuko dituen familiarik, langabezian geratuz gero etxean hartuko dituen seniderik. Ez daukate nora jo. Bi maleta soinean zatoz hona, eta ez daukazu beste ezer. Beraz, babestuko zaituen lagun sare bat izatea lortzen ez baduzu, galduta zaude, bakarrik eta zaurgarri zaude-lako. Eutsiko zaituen esku bat behar duzu, esku lagun bat.

Zorritzarrez, langile askok ez dute beren egoera salatzen. Bizitzen ari zarena onartzera iristen zara batzuetan; beharrezkotasun egoera batean zau-

delako, familia bat duzulako, zorrak dituzulako. Onartu egiten duzu sakrifikatu egingo zarela, ez hainbeste zure buruagatik, zure seme-alabengatik baino. Nik askotan pentsatu izan dut “sistema honetan jarraitu behar dut nire familiak nire beharra duen bitartean”. Jasanezina dena jasaten duzu, eta horrek ez zaitu otzan egiten, baina egoera onartzen duzu.

Hala ere, gu oso duinak garela uste dut; ezer eskatu gabe ere. Duintasuna dago tartean. Ez duzu inoiz emakume latino bat kalean lotan ikusiko, beti izango du laguntza emango dion kide bat. Gogoan dut kasu bat kale gorrian geratu zen emakume batena, baina gauak ohe batean pasatu zituen. Izan ere, etxeko langile egoiliar modura ari zen bere lagun bat, eta gauero-gauero, 23:00etan, berak lan egiten zuen etxean sartzen zuen, ezkutuan. 07:00etan egiten zuen alde gero. Laguna gauero arriskatzen zen lana galtzera, laguntzeagatik. Emakume ausartak dira hona datozenak; itsaso oso bat zeharkatzen dute, bakarrik sarri, eta aurrera egiten dute.

Zein lan egiten duzue Malen Etxean?

Duela 16 urte inguru jarri zuten martxan Malen Etxea, eta nagusiki, emakume immigratzaileen eskubideen defentsan aritzen da. Besteak



“Hona iristen dira erabat suntsituta dauden kideak; pentsatzen dute eurei bakarrik gertatzen zaiela euren haragitan bizitzen ari direna”

beste, aterpetxe bat dugu Zestoan (Gipuzkoa), duela zazpi urte ireki genuena. Elkarte txikia gara, baina oso borrokalaria. Saiatzen gara, esaterako, gure ahalduntzea ehuntzen. Hona iristen dira erabat suntsituta eta txikituta dauden kideak; izan ere, pentsatzen dute eurei bakarrik gertatzen zaiela eu-

ren haragitan bizitzen ari direna. Arazo berberak bizi dituzten beste emakume batzuekin hitz egitea, norbaiti galdetu ahal izatea “normala al da gertatzen ari zaidana?”, eta norbaitek “ez, ez da normala” erantzutea... Oso lagungarria da.

Kide batzuk beldurtuta iristen dira, beren egoeragatik izututa, eta oso la-

gungarria zaie ikustea beste emakume batzuek ere arazo berberak izan dituztela; ikustea ez dela banakako zerbait, indibiduala. Horrek indartsuago egiten ditu, ez dute soilik haien burua ikusten arazo horiekin. Elkarrizketa batean, norbaitek enplegatzailearekin hitz egi-tera anima ditzake, bidezkoak ez diren



egoerak ez onartzera. Askotan, haien erantzuna da “baina kaleratu egingo naute”... Eta guk erantzun diezaikegu: “Kaleratu zaitzatela, ez zara bakarrik egongo”. Bakarrik egongo ez direla jakiteak egiten du haiek ausartzea, eta euren egoera aldatzeko indarra izatea. Eta askotan, arazo batzuk konpontzea lortzen dute. Beste batzuetan, ez. Kaleratu egiten dituzte. Niri gertatu zitzaidan bezala, Eguberri egunean eta Urteberri egunean lan egingo ez nuela esan nienean. Baina nik ez nuen hori onartuko, egun hoietan ez nuen lanik egingo, eta kitto.

Egia da badirela hainbat egoera, non oso zaila den kideak laguntzea. Esate-

rako, sexu-abusuak gertatzen dira gure lanetan; ezagutzen ditugu gau oso bat bahituta pasatu behar izan duten emakumeak. Sinestezinak diren egoerak. Salaketa aurkeztera lagundu behar izan diegu hainbat kideri.

Bestetik, handi geratzen ari zaigun auzi bat ere bada: sexu salerosketa izan den modura, lan salerosketa gertatzen ari da egun. Badira mafiak Nikaraguan esaterako, lan salerosketan jarduten dutenak. Hona mugitzeko bidaia-txartela erosten dizute, abala eskatzen dizute -etxebizitza bat izan ohi dena- eta gero, dirutza eskatzen dizute trukean. Hala, emakumeak hona etortzerako, zorretan daude mafia horiekin, eta ira-

bazten duten diruaren zenbateko handi bat bideratu behar izaten dute lukurari ordaintzeko. Gainontzeko dirua, senideei bidaltzen diete. Kide horiek ia edozein lan onartu behar izaten dute, derrigorrez. Baina ezkutuan daude kasu horiek ere.

Orokorrean, errealitate ugari dira itzalpean geratzen direnak. Gogorra da zortzi ordu lan egin behar izatea; are gehiago 22 ordu egin behar izatea. Gai batzuen inguruan ez da hitz egiten, esaterako, lanaldi murrizketen inguruan. Izan ere, liztorren panel baten modukoa da hau, eta ukituz gero eta liztorren bat ateraz gero, guztiak atera daitezke ziztu bizian liztor habitik.



“Inork ez digu inoiz ezer oparituko, eta are gutxiago aldebakartasunez eta atseginez”

20. Astea

Argi eta kolore pisutsuz jositako saltoki-gune batean, Itaroan (Uharte, Nafarroa), badira etengabeko neonezko kartelak baino are gehiago nabarmendu diren idazkunak: Yelmoren zinema-aretoko langileen aldarriak, pankartetan jasoak. Merkatal-guneko soinu eta zarata azkarren gainera entzun dira 2019an langileen oihu eta exigentziak, mezu garbi batekin: lan baldintza duinen defentsa eta borrokarako grina. Zinemako beharginek Itaroaren historian idatzi dute bertan inoiz egin den lehenengo greba, eta orbain gozoa haritu dute aretoko besaulki eta txoko guztietan.

Itaroako zinema-aretoko langilea da Axier Nuñez (Barañain, 1998), bertako borrokaldiaren jaiotzan egon eta parte hartu duena. Bi greba deialdi aurrera ateratzea lortu zuten iaz; besteak beste, soldata igoera eskatzeko. Oinarriko langile guztiek -gazteak gehienak- egin zuten bat deialdiekin, eta orain, urratzeko bide luzea dutela aurretik diote.

Hasteko, hitz egiguzu Axierri buruz. Non hazi zen eta nola integratu zen soldatapeko lanaren dinamikan?

Barañainen (Iruñerria, Nafarroa) hazi nintzen. Batxilergoko ikasketak amaitu nituenean, nire familiaren egoera ekonomikoa zela-eta, lan bila hasi behar izan nuen unibertsitatean sartu aurretik. Zinemaren sektoreak erakartzen ninduen; *a priori*, lan arlo nahiko eroso dirudi, eta langileen artean, profil nahiko gaztea biltzen duena. Horri heltzea erabaki nuen, beraz. 18 urterekin, selektibitatea egin bezain pronto hasi nintzen Itaroako zineman lanean, gaurko egunera arte. Hiru urte eta erdi daramatzat hemen, eta ia-ia, bertan denbora gehien egin duen langilea naiz.

Urteak igaro dira lan honetan jarduten hasi zinenetik. Zein izan da bertan bizi izan duzun errealitatea eta zein bilakaera izan du?

2016. urtean ekin nion lanari orduko



hartan Cines Itaroa izena zuen zinema-aretoan. Itaroa saltoki-gunearen enpresa bat zen zinema; enpresa txiki bat, krisialdi garaian zinemak aurrera egin zezan sortutakoa. Izan ere, zinemarik gabeko merkatal-gune batek ez du tiratzen, hutsik geratzen da. Gunea bai ala bai irekita mantentzeko bermea da zinema-aretoa. Langile gutxi ginen orduan, guztiok elkar ezagutzen genuen, eta arduradunekin ere harreman nahiko ona genuen. Lan baldintzak antzekoak ziren soldatari dagokionean, baina bereziki, baimenei, oporretarako aukerei zein lantokiko giroari dagokionean, askoz hobea zen lehengo egoera.

2017. urtea hastean, baina, aldaketa nahiko nabarmena izan zen. Zorarena izan ziren Gabonak; jende asko ibili zen aretoan, egun batzuetan 6.000 pertsona ere hartu behar izan genituen. Horretarako estrategia bat jarri zuen martxan saltoki-guneak, esaterako, zinemarako sarrerak euro batean salduta, ia oparituta. Merkatal-gunearen zuzendaritzaren asmoa zen zinema

kudeatzen zuen enpresa saltzea, eta gu ere halaxe sentitu ginen une horretan: salduta. Nahi zuten bakarra diru gehiago egitea zen, eta horretarako, zinemak zuen edo izan zezakeen bolumena ikusarazi nahi zuten, kate handiren batek Itaroa begiz jo zezan. Eta hala izan zen.

Yelmo multinazionalak erosi zuen zinema-aretoa, eta 2017. urteko martxoan sartu zen. Bigarren enpresa da estatu mailan, eta sektorean mundu mailako hirugarren potentzia den Cinopolis katearen barruan dago. 50.000 langile biltzen dituen enpresa bati buruz ari gara hizketan, 17-18 herrialdetan aretoak dituen. Gu, trantsizio une batean murgildu ginen Yelmoren bat-bateko esku hartzearekin.

Nola oroitzen duzu aldaketa une hori?

Multinazionala exijentzia askorekin sartu zen Itaroan. Lan baldintzak aldatu ziren, eskakizunak aldatu ziren, jendea aldatu zen; lehengo arduradunak kaleratu zituzten eta berriak hasi

ziren, zuzendaritzaren apetaren arabera aukeratuak egoera zuzendu zezaten. Egoerak okerrera egin zuzenez, hainbat langilek alde egin zuten eta berriak hasi ziren. Aldaketa hori gure azalean bizi izan genuen, eta hori izan zen mugitzen hasteko abiapuntua. Haserretzen hasi ginen beharginok; ohartzen hasi ginen miseria bat kobratzen genuela, gure gain genuen lan bolumena kontuan hartuta, batez ere. Adarra modu askotara jotzen digutela ikusi genuen. Hala, hauteskunde sindikalak egitea erabaki genuen; hautagaiak aurkeztu genituen, 2018. urteko maiatzean hauteskundeak izan ziren, eta martxan jarri ginen.

Zein da zehazki zuen lanpostuetan bizi duzuen problematika? Zein lan baldintzatan aritzen zarete?

Aldi baterako lanak izan ohi dira, eta ideia horrekin hasten dira bertan oinarriko langileak deritzenak; azkar igaroko den zerbait izango denaren ideiarekin. Gehienetan, nolabaiteko

aurrezkiak behar dituztenek eta nola-bait aurrera egin behar dutenek jotzen dute hona, ikasleek batez ere; ikasketak eta lana uztartu behar badituzu, aste-buruetan baino ezin baituzu lan egin. Lanean hastean, astelehenetik ostiralera unibertsitatean zaude, eta hemen pasatzen dituzu gero asteburuetako arratsaldeak, horrek ekartzen duen guztiarekin. Bizitza sozialari dagokionean, zaila da osagarri izatea. Karga horri guztiari lan baldintzak eta lan mota gehituz gero, eztanda egin dezake egoerak. Erre egiten du. Lan baldintzak negargarriak dira, oinarritzkoenak, lan hitzarmenik ere ez dugu. Bada nolabaiteko araudi marko bat indarrean, 1999. urtekoa eta estatu mailakoa, langileen estatutuen kopia bat dena.

Esanguratsua da ni, soilik 21 urte izanik, bertan denbora gehien daraman langilea izatea oinarriko 36 langileon artean. Hori erabat lotuta dago langileen profilarekin eta lan motarekin; ondorioz, errotazio handia egon ohi da. Hiru urte eta erdian, hiru-lau aldiz

ikusitakoak, aldi berean, langileen %80 aldatzen. Ahal dutenean, beste zerbaiti heltzen diete gehienek.

Mugikortasun horrek badu eraginik langileen antolaketan?

Lantokian bizi dugun errotazioak asko zailtzen du borroka sindikala eta langileok antolatzea. Grebak edo bestelako dinamikak aurrera eramateko beharrezkoa da taldea egitea, taldea sortzea, eta hori oso zaila da egun batean asanbladan 20 pertsona elkartu eta hilabetera erdiak ez daudenean. Berritoki zerotik hastea bezala da hurrengo aldian; auziak azaltzen eta kokatzen saiatu behar dugu berritoki, kontzientzia sortzen, gauzak mugitu behar ditugula ikusarazten, inork ezer oparitutako ez digula argitzen.

Iazko bi greba deialdiak aurrera atera ditugunean, aretoan gutxieneko denbora bat egina zuten langileek, bi-hiru hilabete behintzat. Aski da denbora hori, ikusteko zein lan mota den gurea eta badaudela borrokarako arrazoia. Be-

rritoki langileak aldatzean, baina, berdin gertatzen da; buelta berdinerak. Zirkulu bat da. Dena den, mugikortasun handiak baditu bere indarguneak ere; txarretik duena, badu onetik ere. Alde txarra gure borroka eraginkor bihurtzeko eta taldea sortzeko zailtasuna da.

Alde ona da, ordea, etengabe jende gaztea sartzen dela, eta aurreneko soldapeko lana dela askorentzat. Lan merkatuaren barruan, ez da lan berezi bat zinema-areto honetakoa, bestelako sektoreetako beste edozein kate handitan aurki ditzakegun lanen antzekoa da (denda edo janari kate handiak, kasu), baina gutxiago ordaindutakoa. Orduan, hemen hasten direnek pentsatzen dute, errealki, guztia galduta dagoela hasten direnerako, eta ez dutela askoz ere gehiago galduko. Errazagoa izan daiteke hala kontzientzia sortzea. Esaten diegu lankideei: “begira, lan merkatuan antzeko alternatibak izango dituzu, hobeto ordaindutakoak, baina hemen gaude orain eta goazen hemen borrokatzera”. Lan mota hauetan, askori ez zaie mun-



dua gainera erortzen lana galtzean, zoritxarrez, antzekoak aurkitzea errazagoa izan ohi delako. Hori bada probesten saiatzen garen faktore bat.

Nola jaio zen, hortaz, Itaroa guneko zinema-aretoko langileen borroka? Nola jarri zenuten martxan?

Duela hiru urte egin genituen hauteskunde sindikalak, hemengo problematikari heltzen hasteko eta lan prekarizatuari aurre egiteko. Duela bi urte, abuztuan, greba bat aurrera eramaten saiatu ginen, baina enpresak jokaldi makurra egin zigun. Hasiberrien modura, xaloegi izan ginen. Gogoan izan behar dugu multinazional baten aurrean gaudela; talde juridiko oso bat du, lan harreman talde bat, giza baliabide talde bat. Orduko hartan, greba deitu genuen lan baldintza duinen defentsan, eta enpresatik esan ziguten greba bertan behera utziz gero gurekin eseriko zirela eta negoziazioa irekiko zutela. Deialdia atzera botatzea erabaki genuen, beraz.

Ia urtebete igaro zen, eta ez ziren gurekin harremanetan jarri.

Iazko apirilean, grebara jo genuen berriro, eta egin genuen. Historikoa izan zen guretzat, Itaroan inoiz ez baita grebarik egin edota antzeko dinamikarik aurrera eraman, are gutxiago zinemaren. Grebaldi indartsua izan zen, urteko estreinaldi handi batekin bat etorri zena. Estrategikoki hautatu genuen une hori, bagenekielako jende asko bertarutuko zela; 4.000 pertsonatik gertu egunean. Min handia egitea lortu genuen.

Handik aurrera, enpresarekin hitz egiten saiatu ginen berriz, baina berdina izan zen. Pertsona horiek zerbait soberan badute dirua eta baliabideak dira, eta pikutara bidali gintuzten hasieratik. Hilabeteak pasatu ziren, eta halako batean jakin zuten mugitzen hasiak ginela berriro. Guk hori ere nahi genuen; haien belarrietara iristea beste planto bat egitearen aukera. Hariak mugitu zituzte, eta hainbat hilabetez negoziatioetan murgildu ginen. Enpresaren giza baliabideen arlokoekin

“Hemen hasten direnek pentsatzen dute, errealki, guztia galduta dagoela hasten direnerako”

“Apirilean grebara jo genuen berriro, eta egin genuen. Historikoa izan zen guretzat, Itaroan inoiz ez da grebarik aurrera eraman”



ELKARRIZKETA

24 Artek



“Gizarteak hain barneratuta du langile borrokak ezertarako balio ez duenaren ideia, horrekin apurtzea ikaspen eta irakaspen bat dela beti”

aritu ginen, eta akordio lokal moduko bat erdiesten saiatu ginen, nolabaiteko enpresa itun bat. Herrialde mailan edota estatu mailan hitzarmena adosteko aukerak oso mugatuak direnez, larritasuneko hainbat puntu barnebiltzen zituen itun bat lortzen ahalegindu ginen; adibidez, soldata, baimenak zein jaiegunak adosteko, gure eta gure lan baldintzen mesederako. Hilabetez egon ginen negoziatzen, eta ezer ez. Ez genuen puntu bat ere hitzartu; izan ere, planto egin genuen guretzat gutxienekoa zen baldintza bat atzera bota zutenean. Kontsumo Prezioen Indizeak gora egin duen arren, gure soldatak ez dira igo. Indizearen azpitik gaude, %17 beherago. Enpresak gure soldatak %3 igotzea baino ez zigun eskaini. Beraz, elkarriketetan aurrera egiten saiatu ginen, beste gai batzuk ukitzen, baina esan ziguten soldataren auzia itxi behar genuela lehenengo.

Hilabete eman genuen eztabaidarekin, eta ez genuen akordiorik lortu. Soldataren gaineko ehunekoa igotzea baino, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatatik hainbat osagarri ateratzea lortu nahi genuen; esaterako, antzinatasuna edota gauekotasuna. Hala, gutxieneko soldata igoz gero, gehigarri batzuk eduki ahalko genituen. Ezezko borobila eman ziguten. Hortaz, beste estreinaldi potolo baterako egin genuen greba deialdia, abenduaren 19rako.

Zer ikasi duzue borroka prozesuan zehar?

Zinema-aretoan elkartu aurretik, bakoitzak bere aldetik, norbanako batzuek bagenituen aurretiaz hainbat ezagutza. Lehendik militantea izan den jendea badago hemen lanean, eta oinarri hori babes handia izan da guretzat; batez ere, taldea aurrera eramaten saiatzerakoan, jendearekin hitz egitean, edota borroka bideratzeko erabakiak hartu behar izan direnean. Esaterako, nik Ikasle Abertzaleak antolakundean militatu nuen oso gaztetatik, eta urteak egin nituen bertan. Orain, asko ohartzen naiz, garai gartan, oinarriko militantzian arituta ikasi nuenaz. Gauzak mugitzearen zentzua, sentimendua eta asmoa barneratzen dituzu, baita borrokak aurrera eramatekoa ere. Ibilbide horrek eragin handia izan du nigan.

Itaroako borrokan, zehazki, uste dut garrantzia berezia duela klase sindikatu baten garapenak eta haren sustengua izateak, eta oinarrian lan asko egiten duen eta egiten dakien jendea izateak. Azken hilabeteetan, niretzat harrigarria izan da orotariko lankideak izanik, familia eta jatorri desberdinekoak, eskola desberdinekoak, ibilbide desberdinekoak -askok eta askok ez dute aurretiaz inolako harremanik izan borroka sindikalarkein edota bestelako mugimenduekin oro har- ikus- tea, azkenean, gehienek esaten dutela

borroka prozesu hauekin nolabaiteko kontzientzia bereganatzen ari direla, eta arazoei aurre egin ahal zaiela ohar- tu direla. Duela denbora gutxi inola ere ukituko ez lituzketen gaietan sartu di- rela ikusten dute, pentsaezina zitzaien inplikatzeko mailarekin.

Gizarteak hain barneratuta du gau- zak egitea zaila denaren diskurtsoa, langile borrokak ezertarako balio ez duenaren ideia, horrekin apurtzea ikas- pen eta irakaspen bat dela beti. Erakus- ten ari gara batasunaren bidez, lanaren bidez, kontzientziaren bidez, gauza as- ko atera ditzakegula aurrera, gauza eta borroka benetan eraginkorrak. Ikaraga- rria litzateke gainontzeko zinemetako langileek Itaroan egiten ari garena ikus- tea eta eredu izatea.

Gure soldatak %5 igo zituen Yelmok duela gutxi, eta enpresakoek esan zuen aldebakartasunez egin zutela hori. Na- hi bezainbestetan esan dezakete alde- bakartasunez hartu dutela erabakia, baina guk soberan dakigu langileok egindako presioaren ondorio izan dela neurria. Inork ez digu inoiz ezer opa- rituko, eta are gutxiago aldebakartasu- nez eta atseginez. Asko dago egiteko oraindik, asko dugu aurretik. /

KULTURAREN MERKATUA ETA MERKATUAREN KULTURA

IKUSPUNTUA

Paul Beitia



Durangoko Azoka ez da amaitzen Landako Gunea jaso, fregatu, itxi eta berriz ere pabiloi huts bihurtzen dutenean. Gerora datoz kontabilitatea, datuak, balorazioak eta zenbakiak, batez ere zenbakiak. Argitaletxeek diru-kontuak egin beharko dituzte, eta, kasurik onenean, haietako batzuek erabaki beharko dute idazleei ohiko miseria baino gehixeago ordaintzeko kapaz izango diren ala ez. Beste batzuek, txarreanean, argitaratzeari utzi eta enpresa itxi beharko ote duten planteatu beharko dute. Disketxeek datorren urtean zenbat musikari-ekin lan egin ahal izango duten baloratu beharko dute, autoekoizpenaren aldeko apustua egin dutenek zalantzan ikusiko dute agian beren proiektu osoa. Datu xeheagoak falta zaizkigu azterketa xehegorako, baina hortxe dago arazoa, hain zuzen: euskal kulturaren *erakusle* deiturikoaren arriskuak ezkutuan mantendu ohi direla.

Beste datu batzuk, aldiz, gero eta ugariagoak eta ozenagoak dira urtean-urtean: balantze ekonomiko triunfalak, zenbaki altuak, lerro artean Azokaren proiektuaz zerbait esan nahiko baligute bezala. *Garako* kronikaren izenburuak Landako Gunetik igarotako jende kopuruan ipintzen du arreta, «120.000 bisitari jaso ditu Durangoko Azokak» dio, eta hortik doaz kronikako gainontzeko datuak ere: zein izan

zen egunik jendetsuena, zein ikuskizunerako agortu ziren sarrerak, kaleak eta tabernak lepo beteta zeudela edo, are, iaz baino jende gehiagok erabili duela aurtan autobus lanzadera zerbitzua. Gutxienez deigarria da: Liburu eta Disko Azokako kronika nagusiak taxuzko aipamenik ez dio egiten ezein edukiri, halakoren kalitateari edo bestearen interes artistikoari, zenbakiak dira inporta dutenak. *Berrriak* ere, ildo beretik, zenbait datu soziologiko eta ekonomiko laburbildu zituen, hain zuzen aurtan Siadeco elkarteak Durangoko Azokaren inpaktu ekonomikoaren inguruan egindako ikerketan oinarrituta. Bisitarien jatorriari, generoari eta hizkuntzari buruzko datuez gain, aipatzen da liburuan milioi bat euro gastatzen dela eta diskotan milioi erdi, parte hartzen duten argitaletxeen eta disketxeen urte guztiko fakturazioaren %22 suposatzen duela Azokak batez beste, bisitari bakoitzak 49 euro inguru lagatzen dituela. Hala ere, «Sei milioi euro» esaldiarekin hasten da kronika, Azokak oro har «mugitzen» duen diruari erreparatuta alegia, kontuan hartuta, liburuen, diskoen eta abarren salerosketa ez ezik, baita ostalaritzaren, garraioaren eta besteren irabaziak ere.

Durangoko Azoka gehiago hurbiltzen zaio aspalditxotik turismo-industriaren logikari, gara-

Durangoko Azoka gehiago hurbiltzen zaio aspalditxotik turismo-industriaren logikari, garapen kulturalarenari baino. Ostalaritza-industriak eta industria editorialak interes bertsua dute harengan, interes komertziala, alegia. Hortik Azoka ia soilik kuantitatiboki ulertzeko joera



pen kulturalarenari baino. Turismo nazionalaren helmuga desiratu bihurtua dago bete-betean, bere marka propioarekin, marketingeko apustu gero eta indartsuagoarekin. Ostalaritza-industriak eta industria editorialak interes bertsua dute harengan, interes komertziala, alegia. Hortik harridurarik ez sortzea autobusen erabileraren datuek hedabideei gehiago axola izateak plazaratutako edukien kalitateak baino. Hortik Azoka ia soilik kuantitatiboki ulertzeko joera.

Durangoko Azokaren izaera gero eta nabarmenagoa da eta urtero, hutsik ere egin gabe, intuitzen eta problematizatzen ditu analistaren batek eredu horrek izan ditzakeen arriskuak. Aurtengoa Gorka Bereziartuak egin du, «Kontsumoa vs. genealogia» deituriko kronikan. Bertan gogorarazten digunez, Siadecok plazaratutako ikerketak Azokaren inaktu ekonomikoa eta abarrak aipatzeaz gain, dio bisitarien motibazio nagusia «euskal kultura bultzatu nahia» dela, eta horrek «kontsumoa» Durangoko Azoka ulertzeko marko egokia ote den galdetzeraz darama Bereziartua. Izan ere, haren iritziz, bestelako ezaugarri eta praktika batzuei erreparatzea litzateke aberatsagoa. Alegia, Azokaren balio materialari baino inmateralari –kultur transmisioari eta produktuen kalitateari, kasu– erreparatu nahi

lioke Bereziartuak, kezkatik eratorritako intentzio onez. Nik, hala ere, biribilki erantzungo nioke: bai, kontsumoa da Durangoko Azokaren fenomeno ulertzeko marko egokia. Ez digu balio errealitatea nahiko genukeenaren arabera ulertzeak, hura ahalik eta zehatzen aztertzeak baizik, eta errealitatea da Durangoko Azokak kulturaren –eta euskararen, bide batez– merkantilizazioa azaleratzen digula. Horren arriskuak identifikatzea dagokigu guri.

Kulturaren merkantilizazioa litzateke kultur produkzioa eta kontsumoa merkatuaren logikaren baitan gertatzea, merkantzien produkzio eta kontsumoaren forman, alegia. Kultura produktibitate kapitalistaren legeen arabera ekoitzi eta kontsumitzea litzateke. Euskal Herriko kasuan, turismoaren eta gastronomiaren industrietan topa ditzakegu adibiderik nabarmenenak, baina fenomeno orokortua da kulturaren merkantilizazioarena. Ezinezkoa zaigu gaur egun merkatuaren logikatik kanpoko aisialdi eredu bat izatea, abiapuntu izanik aisialdia bera ere soldatapeko lanarekin erlazioan baino kokatu ezin dela.

Merkatuaren nagusitasun sozial erabateko honetan, kulturaren egungo kontzepzioa arrazionalitate kapitalistan guztiz integratuta ageri zaigu, kultur produkzioa ekoizpen-modu kapitalistarekin estuki lotuta baino ezin dezakegu imajinatu. Gure garaiko jende gehienarentzat, beraz, gauza bera dira kultura eta kultur industria: kultura ez litzateke praktika sozial eta ondasun kolektiboen multzo bat, ezpada merkatzia jakin batzuen salerosketa. Kultura kontsumitzea, esaterako, gero eta lotuago dago jabetza pribatuaren ideiarekin eta elkartruke merkantilarekin: kontzertuetarako beti ordaindu beharra munduko gauzarik normalena iruditzen



1.º ENERO 2020
APERTURA DE PUERTAS DE SAN JUAN DEL MONTE
NACHA PAP LA GUARDIA
LA FRONTERA TENNESSE
ORQUESTA MONDRAGON
MIGUEL COSTAS
ODI AMISTADES PELIGROSAS
CARLOS LATRE DREAM TEAM
ADONIS PAMPLONA 11-12-2019-2020

Gran Concierto de Año Nuevo
STRAUSS FESTIVAL ORCHESTRA
& SYRACUSE FESTIVAL BALLET SYRACUSE
Teatro Gayarre 11

PAMPLONA 24
Club Jet Set PAMPLONA
Cantantes Internacionales Rock Band
VIERNES 27 DE DICIEMBRE 23H
VENIA MICHONIS CON LA MANITA DEL FOLK

QUEEN METAL JAILA TRIBUT
EL ESPECTACULO INTERNACIONAL MAS IMPACTANTE
CANTANTES INTERNACIONALES ROCK BAND
PAMPLONA 24

ANA GUERRA CEPEDA
17 ENE 2020
PAMPLONA

JOHN WILLIAMS
A SYMPHONIC CELEBRATION
Teatro Gayarre 18

STARBEAST
Hard Rock, Pamplona
HUSH LAW
Hard Rock, Pamplona

321, Tricky Jump!

THE BEST OF QUEEN TRIBUTE BAND
BREAK FREE!
Teatro Gayarre 12

WHO'S THAT

VIVA SUCCIA
11-ENERO-2020 VITORIA-GASTEIZ JIMMY
14-FEBRERO-2020 BILBAO-PANFANA 21
15-FEBRERO-2020 PAMPLONA-SALA ZETXO

LUBAKI LUDE
Teatro Gayarre 18

YO FUJA EGB
1.º ENERO 2020
NACHA PAP LA GUARDIA
LA FRONTERA TENNESSE
ORQUESTA MONDRAGON
MIGUEL COSTAS
ODI AMISTADES PELIGROSAS
CARLOS LATRE DREAM TEAM

AMPLONA NARRA ARRA
YO FUJA EGB
1.º ENERO 2020
NACHA PAP LA GUARDIA
LA FRONTERA TENNESSE
ORQUESTA MONDRAGON
MIGUEL COSTAS
ODI AMISTADES PELIGROSAS
CARLOS LATRE DREAM TEAM

GOSPEL
JAZZY LEAP & JAZZY LEAP BAND

MOSCOW STATE BALLET
BY TROVA

PINOCCIO
Palacio Euzkadi 30

EL TRASE NUEVO DEL EMPERADOR
BILBAO 17 y 18 de Diciembre 19.30h
MUSEO DE BILBAO, Bilbao 19 y 20

QUEEN TRIBUTE BAND

LOS SECRETO MI PARAISO
21

SUPERMERCADO ECOLOGICO
NUEVA APERTURA EN LEZKAIRU



Paul Beitia

zaigu, adibidez; liburu bat edukitze hutsak haren edukiak bezainbeste eman diezaguke. Era berean, produkzio kulturala eta artistikoa gero eta gehiago da merkantzien produkzioa, horrek sortzaileen eta artisten subjektibitatean daukan eragin guztia-rekin. Gaur egun, proiektu artistiko bat martxan jartzeak guztiz merkatuaren menara jokatzeari esan nahi baitu, apustu ekonomiko bat egitea, zeina enpresa-proiektu indartsu bat gabe pikutara joan daitekeen. Horren adibide da gure artean *sortzaile* izateak aspaldion hartu duen *enprendore* kutsua, marketing kanpainen lagundutako proiektuek edo edozein produktu –arropa, bitxiak, edozer– «sorkuntza» gisa izendatzeak erakusten duten bezala. Puntu pentsaezineraino lausotu da ekoizpen-modu kapitalistaren eta produkzio kultural eta artistikoaren arteko muga: kulturaren merkatua aztertu dugu orain arte, baina merkatuaren kulturaz ari gara orain.

Arrazionalitate kapitalistaren barneratzea euskal kulturaren gaineko kezkaraino hedatzen da gurean. Euskarazko kultur produkzioaren egoera lazarria da oso, izatez: merkatua txikia da, autonomoek eta enpresa oro har txikiak osatua bereziki, kontsumitzaileak gutxi dira eta ezegonkortasuna eta prekarietatea egoera orokortua da artistengan. Hori euskararen egoeraren beraren ondorio da, noski. Begien bistakoa da hizkuntza bat hegemonikoa ez denean hizkuntza horretan egindako kultur produkzioa ere ez dela hegemonikoa izango eta ez dela haren inguruan kultur industria sendo bat osatzeko kapaz izango. Aspertu arte problematizatu izan dira euskarazko kultur produkzioaren hedadura eskasa, artisten prekarietatea eta abarrak, baina produktibitate kapitalistaren markoa apenas gaintzen duen kulturaren kontzepzio batekin, arazoaren balizko soluzioa ere marko horretan soilik kabitzen da. Horrela, uste da aipatutako arazoak euskarazko kultur produkzioaren merkatua erregulatuta eta indartuta konponduko direla. Durangoko Azokak, gaur egun, ilusio horri erantzuten dio: euskarazko kulturaren industriak izan dezala lau eguneko susperraldi bat urtero, iraun dezan. Eta hantxe daukagu «euskal kultura» deitzen duten hori erakusleho batean, ahalik apainen ipinia, zeinek erosiko duen zain.

Merkatuan ez dugu, ordea, ez kontrolik ez eta soluziorik aurkituko, kontrol eza, ezegonkortasuna eta desjabetza baizik. Gure premia errealei erantzungo dien kultur produkzioari ez da egongo produktibitate kapitalistaren baitan eta horregatik erantzungo diogu guk haren antagoinikoa izango den kulturaren antolakuntzarekin. /

KOIUNTURA
Manex Gurrutxaga

Eztabaida amaigabeak

Espanian ezkerren gobernu osoa dute eta mugimendu sozialetan militante izan ziren batzuk ministro dira orain. Horrek, askotariko erreakzioak sortu ditu panorama politiko ezkertiarrean, eta asko dira ilusioz bizitzen ari direnak gobernu berriaren osaketa. Ilusioa zilegi da noski, kasu gehienetan zoritxarrez inpotentziaren adierazle ere bada: zerbait hobea lortzeko itxaropena galdu duenaren eta eskuin muturra gelditu duela uste duenaren ilusioa eta inpotentzia.

Testu honen xedea ez da gobernu berriaren osaketaz aritzea, testuinguru honek agerrarazi duen eztabaida zahar-berri bati ekarpena egitea baizik. Langile mugimenduak eta estatu aparatuek izan beharreko harremanari buruzko eztabaidaz ari natzaizue, eta honekin, mugimendu sozialistak estatu aparatuetan eduki beharreko presentzia eta paperaren auziaz. Euskal Herrian ere izan du oihartzuna eztabaidak, nahiz eta, agian forma partikularra hartu duen: Ezker Abertzalean “kalea/herri-mugimendua vs instituzioak” eztabaida klasikoa berragertu da, batez ere EH Bilduk gobernu akordioaren aurrean hartu beharreko jarrerari buruzko eztabaidari lotuta adierazi dena.

Pablo Iglesiasek inbestidura saioko bere hitzartzean modu argian adierazi zigun erdi mailako klaseak langile mugimendua nola ulertzen duen, eta ondorioz, kalea-instituzioak eztabaidan estratu honen posizioa zein den: mugimendu sozialak, gobernuaren ikuskaritza lana eta presioa egiteko funtzioa bete behar duten agenteak izan behar dute.

Erdi mailako klaseak ez du kapitalaren kudeaketatik harago existitu daitekeen politika eta botere modalitatearik pentsatzen, eta bere politikaren ulerkerak klase estratu honen ordezkari diren alderdi politiko instituzional eta burokratikoaren posizio instituzionalak hobetzera murrizten da. Funtsean, erdi mailako klasearen botere soziala handitzeko helburuari erantzuten dion jardun instituzionalera. Horregatik da

Iglesiasen adierazpena argigarria, halaber, ikuspegi erreformistak mugimendu sozialak modu utilitarista eta partidistan ulertu behar dituela ulertarazten duelako, hots, estatu aparatuetan bere alderdien pisua handitzeko erabiltzen ditu langile mugimendua eta bere aldarrikapenak.

Eztabaida honetan proletalgoaren interesekoa den posizionamendua beste bat da. Estatu aparatuetan pisua irabaztea baino, krisi kapitalistak indartutako langileon beharrak asebetetz lurralde eta gizarte antolamenduaren gaineko boterea lortzea da proletalgoaren interesekoa, sozialismoa praktikan jarri ahal izatea hain zuzen ere. Mugimendu sozialen edo langile mugimenduaren zereginaren eztabaidari proletalgoaren interesen optikatik begiratzen badiogu, printzipio estrategikoak borrokak irabazi eta borrokaren dinamikan are indartsuago bihurtzean datza. Horrek soilik ahalbidetu diezaiokeelako bere klasearen interesekoak diren geroz eta konkista sozial handiagoak lortzeko ezinbestekoa den botere propioa artikulatzea.

Horrek baina, zer eragin dauka hasieran mahai gaineratu dudana eztabaida orokorrean? Ondorioa nabarmena da: kalea/herri-mugimendua vs instituzioak dikotomia faltsua da, eta eztabaida termino horietan emateak proletalgoa inpotentziara kondenatzen

du, erdi mailako klasearen politika erreproduzitu eta politika proletarioa blokeatzera, alegia.

Erdi mailako klaseak langile mugimendua estatuaren kudeaketara subordonatzen duela esan dugu. Noizean behin mozturro erradikalarekin kalera ateratzen bada ere, errealki bere jardun instituzionala indartzeko helburuarekin erabiltzen du kalea eta herri mugimendua. Politika honen aurrean proletalgoaren sektore erradikalenak kalean gehiago egon behar direnaren aldarrikapen abstraktuan blokeatu nahi ditu, eztabaida termino horietan ematea funtzionala zaiolako erdi mailako klaseari eta bere alderdi demokratei. Beraz, eztabaida pertinetza ez da kalea/herri mugimendua ala instituzioak, batean zein bestean sortzen dugun dinamika eta mugimenduak zein botere modalitate elikatzen duen baizik: burgesiarena ala proletalgoarena.

Ondorioz, dikotomia hori gezurtatzeak eta lehenago aipatutako politika proletarioaren oinarritzeko printzipioan leial mantentzeak, mugimendu sozialistak estatu aparatuekiko izan beharreko papera oso bestelako modu batean pentsatzera behartzen gaitu. Hala ere, hau ez da eztabaida erreal bat Euskal Herriko Mugimendu Sozialistaren momentu honetan, horregatik, eztabaida horretan kritikatu nahi ditudan erdi mailako klasearen elementu politiko

Eztabaida pertinentea ez da kalea/herri mugimendua ala instituzioak, batean zein bestean sortzen dugun dinamika eta mugimenduak zein botere modalitate elikatzen duen baizik: burgesiarena ala proletalgoarena

berberak dimentsio txikiagoan nola adierazten diren identifikatzea interesgarriagoa dela uste dut.

Landu dudan kalea eta instituzioa bezalako dikotomia faltsuen psikologia hezkuntzako langile mugimenduan ere presente dagoela esango nuke. Izan ere, langile mugimenduak inertziaz eta espontaneoki, erdi mailako klaseari funtzionala zaion psikologia eta politika egiteko modua garatzen du, eta horren aurrean, sozialistion zeregina da elementu kontrairaultzaileak proletalgotik baztertzeara. Zentzu horretan, ikasle grebaren nolakotasunari buruzko eztabaida ekarri nahi dut testuaren amaiera honetara.

Mugimendu sozialistatik askotan kritikatu dugun bezala, erdi mailako klasearen intereseko ikasle mobilizazioak *'performanceak'* egitera mugatzen dira. Hau da, ikasle langileentzako hobeakuntza errealeak lortzeko norabidean mobilizatu ordez, *'kontzientziazioa'* helburu duten ekimen espektakularrak egiteko mobilizatu nahi dute ikasleri langilea. Alderdi instituzionalak xurgatu ahal dituzten dinamikak sortzearen logika politikoari eta agenda instituzionalari erantzuten dio eragile hauen jardunak.

Horregatik, erdi mailako klasearen intereseko ikasle erakundeek greba ideologiko eta politikoak egitea lehenetsi dutela esan dezakegu. Itxuraz

behintzat, esleitu dizkiegun funtzio instituzionalak modu egokienean greba eredu honek elikatzen dituelako. Adibidez, Gora Ikasleon Borrokak azaroan egin zuen grebaren izaera ideologikoa.

Bestalde, ikasleria langilearen interesen defentsan dihardugunok, Ikasle Abertzaleok alegia, ikasleon behar materialak lehen lerroan jartzeko apustua egin dugu. Hau da, ikastetxe eta unibertsitateetako baldintzak ikasleen mesedetara aldatzeko apustua egin dugu, eta horrekin koherentzian, greba eredu ekonomikoa lehenetsi dugu.

Egoera konkretuak eta apustu taktikoak ordea, ezin gaitu greba eredu ekonomikoa eta politikoaren arteko dikotomia edo aurkakotasun faltsu bat eraikitzea bultzatu. Forma konkretuak aldakorrek dira eta dinamikaren arabera bere fruituak oso bestelakoak izan daitezke, horregatik, elikatzen duten botere modalitateari erreparatzea da garrantzitsuenak.

Posizionamendu taktikoetan oinarrituta printzipio politiko estrategikoak eraikitzea desegokia da, hots, greba ekonomikoa sozialistatzat hartzea eta greba politikoa erdi mailako klaseko greba gisara ezaugarritzea ekidin beharreko akatsa da. Kalea eta instituzioen eztabaidan gertatzen den bezala, erdi mailako klaseak kaleko mobilizazio eredu partidista garatu izanak ez liguke forma orokor batean

kaleko borroka instituzioen aurkako gisara idealizatzea bultzatu behar, batak zein besteak botere dinamika berbera elikatu dezaketelako, forma ezberdinetan bada ere. Ildo beretik, egoerak ez liguke greba ekonomikoetara mugatu eta politikoak alboratzera bultzatu behar.

Akaso, greba ideologiko-politikoen erabilerak izan dezakeen potentzialari uko egin behar diogu? Eta, kalearen edo estatu aparatuen erabilera, burgesia eta erdi mailako klasearen esku utzi beharko genuke? Ez al dira tresna serioegiak etsai politikoei, eta gainera gure aurka, erabiltzen uzteko? /

EMAKUME TALDEAK ETA AUTOLAGUNTZA

IKUSPUNTUA

Amets
Sarasua



Gatazka konstante batean bizi gara, gure gorputzekin, identitateekin, egiten dugunarekin, baita egiten ez dugunarekin ere; kontraesanez beteta gaude. Emakume egin gaituzte, emakume, bere molde negatiboenean. Barneratuta dauzkagu; militante garenean ere, hor jarraitzen dute, guk ere ez dugu ezaugarri zapaltzaile horiek guztiz desagertaraztea lortu. Zaila egiten zaigu, hortaz, geure baitan naturaltasunez bizitzea, zaila gure gorputzak geure sentitzea. Korapilatu egiten gara gorputzak maitatzearen eta sexualizatzearen arteko muga praktikoa topatzen. Horregatik sortzen ditugu taldeak, zehazki emakume taldeak, ezinezkoa egiten zaigulako dauzkagun egonezin guztiak bakardadean lantzea, are gehiago, daukagun emakumetasun hau bere funts zapaltzailetik askatzea.





Arazoak sortzen dira emakume talde horiek estrategia proletario baten baitan funtzioak betetzeko sortu beharrean, entzungo gaituen norbaiten bila fundatzen ditugunean; hutsunea betetzeko, protagonista izateko edo kezkak uxatzea ahalbidetuko digun emakume talde bat osatzen dugulako. Emakume taldeek eta autolaguntzak bat egiten dutenean, kasik gauza bat eta bakarra izateraino elkartzen direnean, hau da, sozialak diren fenomenoak indibidualismoz konpontzen saiatzen direnean, arazo bikoitz batekin egiten dugu topo. Batetik, bi kontzeptu horiek bateratzeak emakume taldeen funtzioa autolaguntza talde profesionalak izatea dela ulertaraziz, antolatzeke grina dugun emakumeoi norberaren ezintasunen kudeaketan espezializatzen gaitu eta, gainerako bizi politikotik isolatuz, emakume taldeetara zokoratzen gaitu. Hau da, emakumeok kontrola eskuratzeko aukera oro zapuztu eta itxurakerira kondentzen gaitu.

Bestetik, emakume taldeen eta autolaguntzaren arteko harreman honek sortzen duen bigarren arazoa, lehena baino okerragoa da: genero problematikaren subjektibitatearen alorra feminitatearen mistifikazioz bete, eta auzi hau lantzeko bide bakartzat autolaguntza aurkezten da. Aipatutako bigarren arazo horrek, batez ere, optika sozialistaren baitan antolatuta dauden militanteengan duen eraginari erreparatuta, bi joera kontrajarri indartzen dituela baieztatu dezakegu: auzi horiek lantzeko eduki ohi ditugun mugek uzten duten hutsuneak autolaguntza zantzuak sustatzen ditu, eta postmodernismoarekiko errefusa dela eta, subjektibitatearen auzi bera errefusatzen bukatzen da.

Edozein kasutan, Ildo Sozialistatik auzi hori lantzeko daukagun zergatia ez da autolaguntzaren hedapenak sortzen dituen bi arazo horien desegiterra mugatzen. Subjektibitateaz ari garenean, antolakuntzaren dimentsio emozionalaz, identitarioaz, psikologikoaz zein afektiboaz ari gara; adibidez, militanteok geure sentimenduak kudeatzeko daukagun erez, geure buruerekiko daukagun ulerkerez, bat-bateko estimuluen aurrean erantzuteko daukagun kodeez, elkar maitatzeko daukagun moldeez... Eta beraz, oraindik orain, lan-banaketa eraginkor bat egitea zein harreman pertsonal osasuntsuak egikaritzea ahalbidetzen digun subjektibitatea ezartzeko zailtasun handiak daukagunez eta gure militantzia ereduak hala bultzatuta, eginbehar politiko gisa heltzen diogu auzi honen lanketari. Nabarmena da egoera politikoak eskatzen digun borondate, konbintzio zein konpromiso maila zorrotza iraunkorki mantentzeko zailtasuna daukagula, eta eskala txikiagoan eta noizbehinka bada ere, azale-

Beharrezkotasunetik eutsi behar diogu gaiari: mahai gainean dauzkagun erronka politikoak eta gure jarduteko ereduak, maiz, talkan sartzen dira, eta, hortaz, ziklo politikoko eginbeharretara egokitzen den militantzia ereduak atzemateko premia dugu

ratzen jarraitzen dute taldearen goxotasunagatik hurbildutakoek ere. Bereziki, momentu gogorrengan ikusten ditugu militantzia ereduaren diseinuan daukagun ahulguneak; estrategia proletario batek kapitalarekiko daukan funtsa hauslea denez, interes ekonomiko horren alde jokatzeko dutenekin bataila politikoa aurkitzen garenean, kasu. Momentu horiek eskatzen duen determinazioa, eta orokorrean portaera, praktikatzeko ari gara oraindik.

Jakina den bezala, genero problematika ez da subjektibitateak militantzian duen eraginetik at geratzen. Bistan da militanteok geure baitan daramagun kontzientzia burgesagatik gizon-emakumeok jokamolde ezberdinak daukagula. Hala, aipatutako ahultasunak direla eta, gauzatzen jarraitzen dugun disziplina urraketetan ere, genero problematikari dagozkion bi joera historiko bereiz ditzakegu: gizonezkoek genero problematikari dagozkion zereginak betetzeko eduki dezaketen utzikeria, bereziki, militantziaren baitan subjektibitatearen auziak duen paperarekiko urruntasuna; eta emakumezkook, erabakitasun ezak sortzen digun ahultasuna dela eta, baijoi emozionalak betikotzeko zein ardurek gain hartzeko izaten dugun joera.

Lasaitasun kutsu batekin ari naiz honetaz guztiaz, aipatutako zergatien zamaz gain, aurrerantz doanaren determinazioa ere badugulako. Gabeziak gabezi, akats guztietatik haratago, ongi egindakotik ere ikasteko aukera duenaren konfiantza dugulako: gaiari dagokionean, lan-banaketaren edozein puntutan daukagun emakumeon kopurua gorakorra zein militantzia ereduak irabazitako eraginkortasuna aipatu ditzakegu. Badugu nora begiratu, beraz. Nola begiratu behar dugun, hau da, militantziaren baitan subjektibitatearen lanketak hartu behar

Guri, aldiz, autolaguntzak ez digu balio; are gehiago, sortzen dituen ondorio sozialek kaltetu egiten gaituzte: proletarizatuta gaudenez, ez daukagu gurpil zoro horretan irauteko gaitasunik, eta optika sozialistatik jarduten garenez, ezinezkoa zaigu emakumetasunaren kontzientzia burgesak gure jardunean sortzen dituen arazo guztiak autolaguntzaren bidez ebaztea

duen izaera zehaztea, nahasi ohi zaigun ebazpena izaten da. Kultura sozialistak ematen digu testuinguru orokorra, eta norakoa marraztu ahal izateari esker, muturren aurrean dauzkagun mila eta bat arazo lehentasun estrategikoaren arabera ordenatzeko aukera dugu. Kultura sozialistaz jardutea, beraz, ez da etorkizuneko ekonomia sozialista batean edukiko dugun harreman eredu hipotetikoaz hausnartzea. Kultura sozialistaz jardutea, adostutako bideorria gauzatu ahal izateko gaur, orain eta hemen beharrezkoa zaigun militantzia eredu egikitzea da.

Beharrezkotasunetik eutsi behar diogu gaiari: mahai gainean dauzkagun erronka politikoak eta gure jarduteko eredu, maiz, talkan sartzen dira, eta, hortaz, ziklo politikoko eginbeharretara egokitzen den militantzia eredu atzemateko premia dugu. Logika horren baitan kokatu behar dugu, beraz, emakumetasunaren kontzeptu burgesaren azterketa, lehenik eta behin, militante garen emakumeengan subjektibitate arrotz horrek jartzen dizkigun trabak identifikatzeko. Langile gisa jasaten dugun genero problematikaren baitan, emakume bakoitzarengan subjektibitateak betetzen duen paperaren ulerkeria osatu bat eukitzeko gaitasunik ez daukagun arren, badugu egikaritzen ari garen proiektu politikoak daukan garapen mailaren eta emakumetasunaren ulerkeria burgesaren talka ezagutzeko gaitasuna. Hau da, egozten zaizkigun funtzioen gauzapenean, kontzientzia forma horrek jartzen dizkigun oztopo zehatzak ezagutzen ditugu. Emakumeon subjektibitatea kultura sozialistaren eztabaidaren baitan lantzeko bigarren arrazoia, identifikatutako subjektibitatearen elementu zehatz horiek gaindituko dituzten harreman forma berriak

eratzeko daukagun aipatutako premiari erantzuteko daukagun gaitasunaz baliatuta, testuinguru jakin honetan dauzkagun zereginak betetzeko prestatzea da.

Autolaguntzan oinarritzen den feminismoaren defendatzaileek argudiatutako digute talde horietan «haien kontu pertsonalez» aritzen direla, eta, beraz, zilegitasun osoa dutela nahieran jarduteko; diotenez, norberak beretik bereari eutsita soilik osatu ditzakegula geure buruak. Aipatu dut autolaguntza itxurakeria dela, baina ez da hala guztiontzat. Langile aristokraziako emakume gehienentzat erabilgarria da; ez «haiek haietik haienari» ekiten diotelako, ezpada, autolaguntzak eskatzen dituen bitartekoen jabe zein autolaguntzak eskaintzen dituen aukeren onuradun direlako. Hots, nahikoa denbora zein diru dutelako salgaiak erosteko, baita, subjektibitatearekiko dauzkaten kezak direla eta, hala nolako petatxo bidez, ezinegon pertsonalak asetzeko gaitasuna daukatelako.

Guri, aldiz, autolaguntzak ez digu balio; are gehiago, sortzen dituen ondorio sozialek kaltetu egiten gaituzte: proletarizatuta gaudenez, ez daukagu gurpil zoro horretan irauteko gaitasunik, eta optika sozialistatik jarduten garenez, ezinezkoa zaigu emakumetasunaren kontzientzia burgesak gure jardunean sortzen dituen arazo guztiak autolaguntzaren bidez ebaztea. Horrenbestez, subjektibitatearen auziak daukan garrantzia politikoa kontuan hartuta, guztioi dagokigu, zeregin gehiago edo gutxiagorekin, baina erantzunkizun osoz, dimentsio horri egokitutako neurrien bilaketaz arduratzea. /

ERREPORTAJEA

Testua: Juanjo Basterra
jotabeurtzi.wordpress.com

ZENBAKIAK ETA ZENBAKITU EZIN DIRENAK

GEDAR LANGILE KAZETAren hitzaurrea

Askotarikoak dira klase menderatzeak hartzen dituen forma ideologikoak. Sistema kapitalista gaindituko duen kanpo logika baten aukera ezkutatzekoak dira batzuk. Beste batzuk, aldiz, lehenengoaren aukerekin estuki lotuta, beren barne-motorrari buruzkoak dira, eta azaleko kontraesan baten edo gezur baten forma hartzen dute. Eremu horretan estatistika-sistema oso bat eratzen da, itxuraz manipulatzeko ez bada ere, klase-domeinuaren sistematizazio ideologiko eta kontzeptualeko lan handi baten emaitza dena. Juanjo Basterrak egindako hurrengo erreportajearekin, datu “objektiboen” eremuan sartu nahi izan dugu, pentsamolde herrikoiak baliodundutako kategoriak ontzat joz; hor irekitzen da politikarako aukera bat. Horrela, beharrezkoa iruditzen zaigu kategoria horiei buruzko azalpen bat ematea, non, espazioa eta beharra direla-eta, ezinezkoa zaigun sakonki barruratzea.

Mugimendu iraultzailearen desartikulazio politikoaren hamarkadetan, gizarte-politika guztia aipatu kategorietan oinarritu da. Horien artean “aberastasuna” eta “bizitza duina” maiz baliatzen dira. Beste batzuek bezala, aurkezpen neutroa izan arren, maiz ahazten dute abizena: “aberastasun kapitalista” eta “bizitza duin kapitalista”. Eta horra hor funtsezko ezberdintasuna. Jendartean onartutako bizitza duinaren kontzeptua zenbaki estatistikoen bidez mugatuta dago. Hala, hurrengo erreportajea, kontzeptuari buruzko aipamena egiten da, betiere hura definitzen duen baremo estatistikoa zein den aipatuz. Esan gabe doa bizitzan duintasuna, zentzu iraultzailean, ez dagoela lotuta soldataren zenbateko bati. Aitzitik, duintasuna proletarioen emantzipazio sozialerako estrategiarekiko eta klaseen abolizioarekiko konpromiso politiko gisa ulertzen dugu. Beraz, langile klasearen bizitza oro ez duina da kapitalaren atzaparren azpian.

Aberastasunari dagokionez, errealitate soziala argi eta garbi ezkututzen duen kontzeptua da. Lehenengo eta deigarriena, argigarria izateaz gain, aberastasuna - eta horren aurkakoa den pobrezia - dirutan neurtzen dela da, eta ez berehalako bizi-kalitatean, eta hori kontraesanean dago bizitza duin batekin. Aberastasunaren kontzeptu horri aberastasunaren birbanaketa gehitzen zaio. Ondorioztatzen dugu, hala ere, aberastasun kapitalistaren birbanaketa hura abolitzea dela, eta horrekin kontzeptuak berak ukatu egiten duela hura gauzatzeko aukera.

Aberastasuna ez da pobreziaaren antagonista terminologiko soila, figura sozial antagoniko errealak bereganatzen ditu: batetik, aberastasuna polo batean biltzen da, burgesian; bestetik, pobrezia beste poloan, proletalgoan - osoan, eta ez bakarrik zati batean, estatistikak dioten bezala -. Horrela, estatistikan aberastasunaz hitz egiten denean, benetan irabazi kapitalistaz hitz egiten da; banatuko balitz, irabazi kapitalista eta aberastasuna izateari utziko liokeena - eta, beraz, indar ekonomiko-soziala -, pobrezia orokortuz eta kapitalaren ekoizpen-aparatu osoa suntsituz, zeinari ezinbestean lotuta dauden soldata edota pentsioak.

Beraz, kategoria oro historikoa da, bere baliozkotasuna harreman sozial zehatzen markoari lotuta dagoen neurrian. Guretzat ezarrita daudenak baliagarriak dira, horien bidez aberastasunaren eta pobrezia kapitalistaren arteko aldea frogatu daitekeen bitartean.



Langile klaseak are gordinago bizi izan ditu elite ekonomikoek gobernuei ezarritako mendekotasunak eragindako lan baldintzen, baldintza salarialen eta lan osasunarekin lotutako baldintzen kaskartzea. Horrek guztiak eragin du pobreziak, bazterketak eta desberdintasunak gora egin dezaten. Aldi berean, gutxi batzuen aberastasuna modu esponentzialean hazi da, krisi ekonomikoa egon badago ere

Urtarrilaren 30ean greba orokorra izan da Hego Euskal Herrian, “lan, pentsio eta bizitza duinen” alde. 2008an krisia hasi zenetik, bederatzigarren greba orokorra izan da. Horietan azkena, 2013ko maiatzean egin zen, Iñigo Urkulluk Ajuria Eneko jauregia EAJrentzat berreskuratu eta sei hilabetera. Orduz geroztik, langile klaseak are gordinago bizi izan ditu elite ekonomikoek gobernuei ezarritako mendekotasunak eragindako lan baldintzen, baldintza salarialen eta lan osasunarekin lotutako baldintzen kaskartzea. Horrek guztiak eragin du pobreziak, bazterketak eta desberdintasunak gora egin dezaten. Aldi berean, gutxi batzuen aberastasuna modu esponentzialean hazi da, krisi ekonomikoa egon badago ere.

Beraz, beharrezkoa da egun bateko protesta gaindituko duen greba orokorra, langile klasearen aurkako oldarraldiari aurre egiteko. Era berean, ezinbestekoa da egunero kalean borrokari eustea. Horrek izan behar du beharrezko konpromisoa; pertsonen gehiengoak bizi duen errealitateari inolaz erantzuten ez dioten isiltasun garaiak ekiditeko. Izan ere, Espainiako Estatuan 50 lan erreforma baino gehiago egin dira 1980tik, langile klasearen behin-behinekotasunean, prekarietatean eta lan eta soldata eskubideen galeran sakondu dutenak. PSOEK eta Pode-

mosek osatutako Espainiako Gobernu berriak aurreratu duenez, legegintzaldi honetan langileen aurkako zenbait neurri atzera botako dituzte; euren gobernu programak, baina, etorkizunaren gaineko ziurgabetasuna areagotzen du. Eta, jakina, ez ditu erroten hausten eraso estruktural horiek.

PENTSIOAK

Duela bi urte pentsiodunak izan ziren borrokarako pausoa eman zutenak. Mobilizazio horiek ardatz dira egun Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartako kolektiboek egin duten greba deialdian. Zentzugabekeria dirudien arren, pentsioa da bizitza laboralaren edo ez-bizitza laboralaren epizentroa. Pentsio duin eta publikoak bermatzeko borrokak berarekin dakar lan baldintza eta soldata justuak bermatzeko lan merkatu baten aldeko borroka. Gaur egun ez da hala eta, beraz, langile klasearen borroka, zaharretatik gazteenera, elite ekonomikoen menpeko gobernuek ezarritakoaren aurka zuzendu behar da. PSOEren eta PPren lan arloko eta Gizarte Segurantzako erreformek arriskuan jarri dituzte pentsioak, neurri handi batean, bankuek kudeatzen dituzten sistema pribatuei mesede eginez, eta pentsiodunei diru-sarrerak hainbat bidetatik murriztuz. Argi geratu behar da pentsioen sistema publikoak bakarrik bermatuko dituela pen-



Pentsioen erdiek baino gehiagok (% 52,55) ez zuten 1.080 euroko muga gainditzen. Azken hori da Espainiako Gobernuak behin eta berriro urratzen duen eta Europar Batasuneko Eskubide Sozialen Gutunak ezartzen duen pobreziaren muga. Espainiako Estatuak behin eta berriz urratzen duena

tsio duinak.

Egungo ereduaren gainbeherak ezinezko egiten du helburu hori. Hego Euskal Herrian, 698.456 pentsiodun zeuden iaz, 2019ko azken datu ofizialen arabera. Horien guztien %42,72k Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (900 euro) baino gutxiago jasotzen zuten, eta pentsioen erdiek baino gehiagok (% 52,55) ez zuten 1.080 euroko muga gainditzen. Azken hori da Espainiako Gobernuak behin eta berriro urratzen duen eta Europar Batasuneko Eskubide Sozialen Gutunak ezartzen duen pobreziaren muga. Espainiako Estatuak behin eta berriz urratzen duena. Baina, horrez gain, Hego Euskal Herriko gobernu autonomikoek behin baino gehiagotan arbuia dute pentsio txikienak osatzeko aukera, diru sarrera horiek pobreziaren langa gaindi dezaten lortzeko, beharrezko eskumenak izan arren.

Duina ez dela dioten egoera horren aurrean, greba orokorraren sustatzailerik hilean 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen dute; gizarte kotizazioen eta zergen bidez pentsio sistema bermatzea, eta lanaldi partzialeko kontratuetan kotizazioen zenbaketa ez zigortzea. Hau da, lan egindako egun bakoitza kotizatutako egun gisa bermatzea.

Beharrezkoa da, halaber, erretiroa 65 urtetan mantentzea; erretiro aurre-

Hori guztia progresiboa izango da erretiro-adina 67 urtera igo arte

ratua 61 urtetan mantentzea, 30 urte kotizatuta; pentsioa kalkulatzeko 15 urte aintzat hartzea; pentsioen erosteko ahalmena bermatzea eta iraunkortasun faktorea ezabatzea.

PSOEk eta PPK zuzendutako Estatu kapitalistaren erreformek, batez ere, pentsioen sistema publikoa deskapitalizatu dute. Era berean, langile klasea behartu dute kotizatutako urte gehiagorekin pentsio murriztagoekin bizitzera. Horrela gertatuko da 2020tik aurrera ere, W murrizteko neurriak bizkortu egingo baitira, honako neurri hauen baitan: erretiro-adina 65 urte eta 10 hilabetera igotzea (2019an baino bi hilabete gehiago); 65 urterekin erreti-

roa hartzeko behar den kotizazioaren iraupena 37 urtera igotzea (2019an baino hiru hilabete gehiago); pentsioen %100 jasotzeko kotizatu beharreko urteak handitzea (35 urte eta 6 hilabete izatetik 36 urte izatera igaroko da); eta kalkulu-aldia ere handitu egingo da, 22 urtetik 23 urtera. Hori guztia progresiboa izango da erretiro-adina 67 urtera igo arte. Planteamendu hori baino ari-nagoa den neurri batengatik Frantzian ia bi hilabeteko greba deialdia ari dira aurrera eramaten, Macronen gobernuak erretiro-adina igotzeko erabakia atzera bota badu ere.

ABERASTASUNA ETA SISTEMA PRIBATUA

Burgesiaren interes ilunek, besteak beste PSOEk eta PPK ordezkatuak, erreformen bidez, eragin dute sistema pribatuak haien ondarea ziztu bizian handitu dezan. 2019ko irailean, 113.651 milioira iritsi zen zenbatekoa, eta 1991n Toledoko Ituna indarrean sartu zenean, 4.890 milioikoa zen. Beraz, argi dago zeintzuk diren pentsio-sistema pribatu baten alde daudenak; Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmen azaleratzen dituzte interes horiek Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek (BGAE), ageriko zerga abantailak dituzte eta diru-sarrerak handienak dituztenei bakarrik egiten diete mesede.

Foru-ogasunen 2017ko txosten in-

Beraz, argi dago zeintzuk diren pentsio-sistema pribatu baten alde daudenak; Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmen azaleratzen dituzte interes horiek Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek (BGAE)

Sortzen den galdera da ea nahikoa diru ote dagoen pentsio sistema publikoan pentsio duinak bermatzeko eta, aldi berean, langile klasearen esplotazioaren ondorioz sortzen den pobrezia gero eta handiagoa iraultzeko. Erantzuna baiezkoa da

tegratuaren arabera, “ekarpen horien bolumena 670 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta zergadunen % 30,8k egin zituzten; kopuru horiek ekarpenen zenbatekoa % 3,5 handitzea dakarte, aurreko urtearekin alderatuta. Batezbesteko ekarpen orokorra 1.949,8 eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baina handiagoa. Errenta-maila baxuen batezbesteko ekarpena 1.315 eurokoa izan zen. 30.000 eurotarainoko likidazio-oinarria dutenen artean zergadunen % 23,8k baino ez dituzte ekarpenak egiten. 30.000 eta 90.000 euro arteko oinarriak dituzten zergadunen artean batezbesteko ekarpena 2.630 eurokoa izan zen, zergadunen % 49,4k egiten dituzte ekarpenak bertan. Errenta maila altuetan 4.997 eurokoa izan zen batezbesteko ekarpena; bertan ekarpenak egiten dituzten zergadunen batezbestekoa %61,5ekoa da.

Gainera, PNV-PSEren EAEko gobernuak errenta altuak dituztenen zerga-abantailak hobetu nahi ditu. Izan ere, ohartu dira 2013tik 2018ra BGAEak “zenbaki gorrietara” erori direla, 850 milioi baino gehixeagoko balioetara arte. Urteko ekarpenak ez baitziren laguntzak eta erreskateak baino handiagoak izan. Hau da, legediak baimentzen dien modura, hainbatek diru ekarpen horiek berreskuratu egin zituzten. Izan ere, EAJk zuzendu eta kontrolatutako BGAEren txosten ofi-

zialek adierazten dute erreskate horiek beren jabeen baldintza fiskal egokiak bermatzen dizkietelako eta urteko dibidenduak igotzen dituztelako gertatzen direla, eta horrek ez du zerikusirik pentsio osagarria indartzearekin. Inbertsio Kolektiboko Erakundeek eta Pentsio Funtzen Elkartek (Inverco) jasotzen duten bezala, bankuak dira pentsio funts pribatuetan interes handiena dutenak. Izan ere, hamabost garrantzitsuenen artean ondare pribatuaren %85 kontrolatzen dute, eta horien artean daude Caixabank, BBVA, Santander, Bankia, Ibercaja eta, besteak beste, Kutxabank.

Sortzen den galdera da ea nahikoa diru ote dagoen pentsio sistema publikoan pentsio duinak bermatzeko eta, aldi berean, langile klasearen esplotazioaren ondorioz sortzen den pobrezia gero eta handiagoa iraultzeko. Erantzuna baiezkoa da. XXI. mendea hasi zenetik, aberastasuna %80tik gora handitu da Hego Euskal Herrian, Eustaten eta INEren arabera. Aitzitik, aberastasun osoa hartuko bagenu, 2008an krisia hasi zenetik, langileen ordainsariak %4 jaitsi dira. Bistan da krisi garaian aberatsenek lortu dituztela etekin handienak. EAEko foru-ogasunen txosten integratuak baieztatzen du biztanleen %1,66k BPGren %49ko aberastasuna osatzen dutela. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 773 pertsonak soilik osa-

EAEko foru-ogasunen txosten integratuak baieztatzen du biztanleen %1,66k BPGren %49ko aberastasuna osatzen dutela





Hala erakusten dute Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren emaitzek. Hain zuzen ere, ikerketa horrek berretsi du 2008 eta 2018 urteen artean %46 hasi dela pobrezia erreala pairatzen dutenen kopurua. Errealitateak agerian utzi du, 446.695 pertsona bazterkeria eta pobrezia erreal arriskuan daudela, duela bi urte baino %16 gehiago

tzen dute ondare guztiaren %14, 10.664 milioi. 2017ko datuak dira eta gora egin dute. Europar Batasuneko herri aberatsenen artean gaude. Aberastasuna badago, baina birbanaketa justuago bat beharrezkoa da. Era berean, besteak beste, Ignacio Zubiri, Javier Fernandez-Macho eta Mari Carmen Gallastegi EHUKo katedradunek osatutako ikerketa taldearen azterketek ondorioztatu zuten zerga iruzurrarekin amaituko balitz, urtean, gutxienez, 2.300 milioi euro gehiagoko diru-sarrerak izango lituzkeela ogasunak. Era berean, duela egun batzuk Bizkaiko Ogasunak jakinarazi zuenez, “2016tik, 11.000 zergadunek baino gehiagok dituzte 1.500 milioi euro beste herrialde batzuetan. Informazio hori 50 herrialde baino gehiagotatik dator, nahiz eta Suitzan soilik 600 milioi euroko saldo metatua izan”.

Langile klasearen zati handi batek pobrezia, gizarte bazterketa eta lan esplotazioa pairatzen ditu; era berean, bere baliabideak ez dira bizitza duin bat izateko adinakoak. Hala erakusten dute Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren emaitzek. Hain zuzen ere, ikerketa horrek berretsi du 2008 eta 2018 urteen artean %46 hasi dela pobrezia erreala pairatzen dutenen kopurua. Errealitateak agerian utzi du, 446.695 pertsona bazterkeria

eta pobrezia erreal arriskuan daudela, duela bi urte baino %16 gehiago. Gobernu autonomikoak, probintzialak eta tokikoak ez dira premia larrian dauden pertsona horien zerbitzura jarri. Jakina da, neoliberalismo/kapitalismoaren aterkipean aurrera egiteak biztanleen arteko pobrezia areagotzen du. PNV-PSE gobernuaren beraren txosten ofizialak baieztatzen du 60.618 pertsona “ez daudela artatuta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez”, nahiz eta komunikabideetan egunero ikusten dugun errealitate gogor eta lazarri hori ikusezin bihurtzeko saiakera.

Izan ere, duela hiru hilabete Credit Suisse enpresaren ikerketa batek baieztatu zuen Espainiako Estatuan 2010 eta 2019 artean milioi-dunen kopurua %47 handitu zela, 172.000 izatetik 979.000 izatera. Suitzako bankuaren txostenak munduko hamar herrialde aberatsenen artean kokatzen du Espainiako Estatu, eta lau urtean 1,4 milioi milioi-dun egongo direla bertan aurreikusten du, %42 gehiago. Hego Euskal Herrian datuak ezkutatu egiten dira, Kontzertu Ekonomikoari eta Hitzarmen Ekonomikoari esker, baina Espainiako batezbestekoaren gainetik dago, %15 eta %20 artean. Datu adierazgarriak dira Oxfam Intermonek berriki egin-

dako txosten batek aitortzen dituenak, 2019an munduan zeuden 2.153 milioi milioi-dunek 4.600 milioi pertsonak baino aberastasun gehiago zuten. Munduko 22 gizon aberatsenek Afrikako emakume guztiek baino aberastasun handiagoa dute, eta biztanleriaren %1 aberatsenak 6.900 milioi pertsonaren





aberastasun bikoitza du.

LAN MERKATU PREKARIOA

Hirugarren elementu garrantzitsua lan merkatua da. Hilero egiaztatzen dugu langabezia oso maila negatiboetan mantentzen dela. 2019an, 147.360 langabe zeuden Hego Euskal Herrian, %10

inguru. Nahiz eta benetako langabezia, hau da, okupaziorik gabeko eskatzailerak, 158.159 pertsona diren. Lanbideren datuek adierazten dute 316.000 pertsonak eskatzen dutela enplegu bat. Langabezian zeuden pertsonetatik 78.282k ez zuten laguntzarik lortu 2019. urtea amaitzean; %53,55 dira.

Kontratazio prekarioak gora egin du. 2019an 1.406.992 kontratu sinatu ziren guztira, krisiaren hasieran baino 345.308 kontratu gehiago izan ziren. 2008an, baina, Hego Euskal Herrian kontratu mugagabeak ez ziren %8ra iritsi. Kontratuen % 92,22 aldi baterakoak izan ziren.

Kontratazio prekarioak gora egin du. 2019an 1.406.992 kontratu sinatu ziren guztira, krisiaren hasieran baino 345.308 kontratu gehiago izan ziren. 2008an, baina, Hego Euskal Herrian kontratu mugagabeak ez ziren %8ra iritsi. Kontratuen % 92,22 aldi baterakoak izan ziren

Lan prekarietate handi horrek, bestalde, soldatapekoen %15,74 pobrea izatea dakar: hau da, ez dira hilean 1.080 euroko batezbesteko soldatara iristen, hamabi ordainsaritan. 163.000 soldatapeko langile daude egoera horretan, INEren azken datuen arabera

Beste elementu erregresiboetako bat da kontratazio prekarioak enpresaburuen esku utzi izana. Hala, elite ekonomikoak enpresen lehiakortasuna handitzea lortu du, enpleguaren kalitate eskasaren eta horren ondoriozko sol-daten maila baxuaren bidez.

Lanbidek aitortu duenez, eta Confebask patronalak agerraldietan nabarmendu, "aipatu ohi denaren kontra, kontratu mugagabeen kopurua ez da txikia; izan ere, urtearen amaieran mota horretako 60.000 kontratu baino gehiago sinatzen dira EAEn. Badirudi arazoak kontratu mugagabe horien sendotasun eskasean datzala; kontratu horiek benetan egonkorrak izango balira, lau urtean, aldi baterako kontratua duten 200.000 langile ingururen kontratu-harremana sendotzea lortuko litzateke, eta hori ez da horrela".

Bestalde, "2019ko abenduan sinatutako bost kontratutik bi (% 42,5) lanaldi partzialekoak dira, erdia baino gehiago emakumeen kasuan (%53,4), eta heren bat inguru, gizonen kasuan (%30,3). Kontratazio mota horien arazorik handiena da gehienak ez direla borondatezkoak, eta horrek agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanan kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen %32,6 lanaldi partzialekoak dira".

Errealitate gogor horri gehitu behar zaizkio, zalantzarik gabe, Lan Harremanen Kontseiluaren (CRL-LHK) da-

tuak. Datuok baieztatzen dutenaren arabera, ekitaldiaren itxieraren faltan, iazko lehen sei hilekoan sinatu ziren kontratuen %38,8 zazpi egun baino gutxiagorako izan ziren. 2009an, kontratu horiek %30,9 ziren. Egoera hori, enpresaburuek prekarietatea maximotara eramateko dituzten erraztasunek ahalbidetzen dute, eta horrek eragotzi egiten ditu bizi baldintza duinak. Era berean, miseria kontratueta kateatuta egotea, miseriazko soldatak jasotzeko.

Beste datu esanguratsu bat, bestalde, kontratazioan ematen den txandakatzearen atzean ezkutatzen da. Langileak bizi duen mendekotasunak enpresa-erabakien mende egotera behartzen du, eta hala ere, txandakatze horiek aukera ematen diete agintariei langabezia murrizteaz edota kontratazio handiaz hitz egiteko, prekarioa izan arren. Eragin estatistikoa du beraz, lan errealitateari buruzko ilusioa sortzen du, lan esplotazioaren beste zati bat baino ez denean. Hala egiaztatu dezakegu Araban, 192.312 kontratu sinatu ziren 63.979 pertsonarekin. 1.567 pertsonak 39.860 kontratu sinatu zituzten. Bizkaian 516.989 kontratazio sinatu ziren, 157.606 pertsonako. Horieta-tik, 5.085ek 162.307 kontratu sinatu zituzten. Gipuzkoan, 105.966 lagunek 291.885 kontratu sinatu zituzten. Hala, 2.374 lagunek 63.498 kontratu sinatu zituzten. Eta Nafarroan, 122.190 lagu-

nek 384.981 kontratu sinatu zituzten. 3.667 pertsonak soilik 98.371 kontratu sinatu zituzten. Espainiako Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2018ko datu itxiak dira horiek, oraindik ez da-goelako 2019ko datu itxirik.

Lan prekarietate handi horrek, bestalde, soldatapekoen %15,74 pobrea izatea dakar: hau da, ez dira hilean 1.080 euroko batezbesteko soldatara iristen, hamabi ordainsaritan. 163.000 soldatapeko langile daude egoera horretan, INEren azken datuen arabera.

Esan bezala, Europar Batasuneko eremu aberatsenen artean dago Hego Euskal Herria. Horrez gain, enpresaburuek etekina ateratzen diote gizonen eta emakumeen artean dagoen soldata-arrakala izugarriari, baina baita aldi baterako kontratuen eta kontratu finkoen artean dagoenari ere. Errealitate hori eztaba daezina da, generoaren arabera soldata-arrakala murrizteko borroka hasi zenetik hamarkadak igaro badira ere. INEren datu ofizialen arabera, emakumeek %26,27 gutxiago jasotzen dute Nafarroan. EAEn %23,57 txikiagoa da soldata, 2017ko soldata egituraren inkestaren arabera. Horretaz guztiaz etekina ateratzen dute enpresaburuek, eta hori gutxi balitz, aldi baterako langile batek batezbeste %30 soldata txikiagoa jasotzen du EAEn, eta %39 Nafarroan. Erradiografia negatibo horretan guztian, etxeko

Desberdintasun hori %50etik gorakoa da langileak gazteak badira. Horrek guztiak agerian uzten du nor ari den egoera horretatik eta horien bizkarrera aberasten

2008an krisia hasi zenetik, Euskal Herrian 771 langile hil dira lan istripuen ondorioz, bederatzi dira dagoeneko 2020. urte honetan

lanetan eta zaintza-lanetan aritzen diren pertsonak nabarmendu behar dira, soldata txikiak izateaz gain, haien lan baldintzak, askotan, ia ez baitira existitu ere egiten.

Desberdintasun hori %50etik gorakoa da langileak gazteak badira. Horrek guztiak agerian uzten du nor ari den egoera horretatik eta horien bizkarrera aberasten. Horregatik, beharrezkoa da soldata-hesia 1.200 eurotik gora jartzea Lanbide Arteko Gutxieneako Soldatan. Duela egun batzuk BBVak nabarmendu zuen LGS 900 eurora igo izanak 45.000 lanpostu suntsitu zituela, eta Eduardo Zubiarre Confebaskeko presidentea ez zen ausartu hori egiaztatzen. Bestalde, BBVak kontuan har lezake, batezbeste, Balore Merkaturaren Batzorde Nazionalaren (CNMV) arabera, enpresetako exekutiboek langileek baino 86,6 aldiz gehiago irabazten dutela.

LANEKO EZBEHAR KOPURUA

Beste arazo garrantzitsu bat, laneko ezbehar kopurua da. Azken horrek ere lotura zuzena dauka, gainera, pentsioekin. Izan ere, pentsiodunetako asko, lan istripuek edo lanbide-gaixotasunek eragindako alargunak dira. Adibidez, 2019ko azarora arte, datu itxi ofizialen faltan, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan baja eragin zuten 45.000 lan istripu izan ziren, eta 3.000 inguru

lanbideari lotutako gaixotasunengatik izan ziren. Gainera, EAEn bazarik gabeko beste 42.000 lan istripu gertatu ziren, eta horrek erakusten du lantokietako lan arriskuen prebentzioak gainditu gabeko irakasgaia izaten jarraitzen duela.

Izan ere, Osalanen eta Nafarroako Lan Osasunerako Institutuaren datu ofizialen arabera, azarora arte 35 heriotza izan ziren, zentral sindikalek 44 hildako izan direla badiote ere. Kostu handiegia miseriazko soldatak jasotzeko. Kontuan hartu behar da, kasu horretan, 1995eko Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea 1996ko otsailean indarrean jarri bazen ere, enpresetako askok oraindik ez dutela ekoizpen-prozesuen segurtasun-azterketarik egin. Azken finean, adituek lan arloko segurtasuna bermatzea ezinbestekoa dela badiote ere, bost axola zaio langilearen segurtasuna enpresaburuari.

Prekarietate kapitalista estrukturala dago istripu hilgarri gehienentzat: lan erritmo altuak, langileen prestakuntza eta informazio falta; eta, batez ere, segurtasun neurri falta enpresetan. 2008an krisia hasi zenetik, Euskal Herrian 771 langile hil dira lan istripuen ondorioz, bederatzi dira dagoeneko 2020. urte honetan.

Bestalde, 2019an 3.243 lan istripu zenbatu dira EAEn eta 1.826 Nafarroan.

Kasu horretan, amiantoaren mineral kantzerigenoaren eraginpean egon ziren langileen heriotzak nabarmendu behar dira. 2020. urtean, dagoeneko, bederatzi langile hil dira Hego Euskal Herrian, iaz 32 izan ziren, Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarateak (Asviamie) zenbatutako datuen arabera. Gehienak, ezkutuan daude. 1993. urteaz geroztik, hainbat erakunde publiko datu estatistikoak jasotzen hasi zirenetik, amiantoaren mineral kantzerigenoarekin kontaktua izan zuten 2.439 pertsona hil dira, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Dramak aurrera jarraitzen du, eta 40ko hamarkadara arte amiantoaren eraginez hildako gehiago egotea espero da.

Beraz, benetan, arrazoiak egon badaude greba orokorrerako eta, batez ere, egunero kalean borrokari eusteko. Harik eta langile klaseari mesede egingo dion norabide aldaketa egon arte. Guztion zeregina da. /

ESPAZIOAREN GAINEKO KONTROLAZ

IKUSPUNTUA

Alain
Arruti



Gedar Langile Kazetak eman didan aukerari eusteko ordua badela deritzot. Bada denbora militantziaren inertziek ikuspuntu proletario batetik espazioaren eta jabetzaren arteko auziaz hausnartzera eraman nindutela. Klase menderakuntzaren aurpegirik gordinenetakoa dugu hori, jabetza ezak proletalgoari dakarkion hauskortasun eta babes falta etengabea metropoli handietako eskaparate erakargarrienak ere ezkutatu ezin duen errealitatea baita. Logika ekonomikoarekiko erantzukizunez diharduen arrazionaltasun kapitalistaren baitan, azaldu bai, baina nekez defendatu ahal dena: kale gorria, ezereza.

Espazioen gaineko kontrolaren gaia mamitsua bezain erakargarria da, ortzi-muga politiko berriak esploratzea ahalbidetzen baitigu. Problematikari aurre egiteko bideak irekitzen eta epe luzera begira marraztu beharreko pausoak norabidetzen laguntzen digu.

Txoko honetan espazioaren gaineko langile kontrolaz hitz egingo dut: burgesiak dituen kontrol estrukturez, antolakuntzaren beharraz, indar metaketaz, okupazio, desjabetze eta birjabetze prozesuen logika politikoaz zein langile kontrolpeko guneen esperientzia historiko ezberdinez. Finean, politika antagonistari hertsiki lotuta doakion gai hori abordatzeko saiakera bat da hau, beste ekarpen bat eztabaidari.

Gaurkoak sarrera moduan balioko duenez, optika orokor bat plazaratu nahiko nuke, espazioen

gaineko langile kontrolaz baino, espazioen gaineko kontrolaz hitz egiteko.

Izan ere, badaude bi kontrol forma edo kontrol eredu, gizarte kapitalistan aurkakoak izanik ere, elkarrekin bizi direnak. Lehena, hegemonikoa, burgesiak lurraldea komandatzeko duen gaitasun generalaren ondorio dena, botere burgesaren ondorio dena: espazioen gaineko kontrol burgesa. Bigarrena, aldiz, modu hauskor eta desegonkor baten ageri zaigu, eta ez du denboran irauteko gaitasunik: espazioen gaineko langile kontrola.

Klase botere burgesa lurralde bateko prozesu sozialak antolatzeke burgesiak duen boterea da. Burgesiak espazio baten gaineko kontrola bermatzeko egitura oso bat dauka, instituzio ekonomiko, juridiko, politiko eta ideologiko-kulturalaz konfiguratzeko dena (Estatua, marko juridikoa, eskolak,



**Jabetza ezak proletalgoari
dakarkion hauskortasun
eta babes falta
etengabea metropoli
handietako eskaparate
erakargarrienak ere
ezkutatu ezin duen
errealitatea baita. Logika
ekonomikoarekiko
erantzukizunez diharduen
arrazionaltasun
kapitalistaren baitan,
azaldu bai, baina nekez
defendatu ahal dena: kale
gorria, ezereza**

etab.). Instituzio horiek klase boterearen aplikazio konkretuak dira.

Diruaren bitartez gauzatzen dira unibertsal gisa ageri zaizkigun eskubideak, tartean, espaziorako sarbidea. Beraz, marko juridiko burgesaren atzean trukea oinarrian duen harreman ekonomiko bat daukagu, zeinetan jabeak jabetza baterako eskubidea ordaintzen duen. Harreman ekonomiko hori da estruktura juridikoaren aurrebaldintza. Estruktura juridikoaren izateko arrazoia trukearen harreman ekonomikoa modu ordenatu batean gauzatzen dela bermatzea eta harreman hori babestea da.

Konkretuan, botere legegile, judizial eta beteazlearen bitartez, burgesiak espazioen erabilera diruaren eta jabetza pribatuaren printzipioen arabera arautzen du, eta arau horiek hausten dituen zigortzeko mekanismoak sortzen ditu.



Langile klasea, ordea, kontrol burgesa hautsi eta espazioaren kontrola bereganatzeko beharrean gertatzen da. Izan ere, espazioa erabiltzeko eskubide burgesa diruarekin erosi ordez, bera kontrolatzeko gaitasuna eskuratu dezake indarrez: okupatuz, ordainketak desobedituz, guneak eskuratzeko borroka politikoz etab. Langile indarra eszenatokian sartzean, hots, kontrol burgesa puskatuz espazioa erabiltzeko gaitasuna lortzen denean, langile kontrola ezartzen da. Gazte asanblada batek beharrian politiko, sozial zein kulturalak asetzeko okupatu duen gaztetxea; hipotekari aurre ezin egin eta kaleratze aginduaren aurrean intsumisiora jo duen eta zilegitasunez berea duena defendatzeko hautua egin duen familiaren etxea; unibertsitate, fabrika, ospitale, zein bestelako azpiegitura berreskuratuak; guztiak langile kontrolpeko espazioen esperientziak dira.

Proletalgoak espazioaren gaineko kontrola bere esku hartzea jabeekiko, eta beraz, trukearen logika ekonomikoarekiko independentzia edo autonomia akto bat da. Baina, klase menderatzailearekiko independentzia akto horrek sortzen duen zaurgarritasun egoera larria da. Antolakuntzaren beharra agertzen da, klase barneko antolakuntza, elkartasun eta babes dispositibo efektiboen bitartez gorpuzten dena. Izan ere, paradoxikoa dirudien arren, klase arteko independentzia klase barneko dependentzia bihurtzen da, eta hor guri dagokigu erantzutea.

Kapitalaren logika operatiboari antagonikoa zaion fenomeno soziala dira langile kontrol espazioak; bertan, espazioaren gaineko funtzio ekonomiko-soziala apurtu eta proletarioaren behar inmediateotara subordinatzen da espazioaren kudeaketa, langileak espazioaren gainean ezartzen du bere kontrola bere beharrian materialak asetzeko ezinbesteko neurria duelako. Ez da logika politiko bat duen ekintza deliberatu bat, kapitalak sektore jakin batzuetan sortzen duen agoniaren aurreko erreakzio espontaneo baizik, antolatu gabe egonik ere, etengabe erreproduzitzen dena, baina sekulako potentzialitate politikoa duena agonia antagonismo bihurtzeko, antolakuntzaren bitartez fenomeno politiko bilakatzeko. Gizarte egitura aldatu ezean ezin baitzaio espazioen gaineko arazoari ebazpen betiereko bat eman, langilegoaren eta, azken instantzian, gizadiaren interes kolektiboak botere metaketa basatiaren logikaren gainetik jartzea ahalbidetzen duen gizarte antolamendu eta botere egitura oso baten bitartez soilik gauza baitaiteke horrelakorik; Estatu sozialistaren bitartez. /

Beharrizana eta kontingentzia. Ezker Abertzalearen adibidea

Ezker Abertzale Ofizialistak azken boladan bultzatutako zenbait dinamikek eta gertaera hauen aurrean euren oinarri sozialak erakutsi duen aihergatasunak Ofizialismotik kanpo lerratzen diren hainbat norbako zur eta lur utzi ditu. EH Bilduk PSOE eta Podemosen gobernua babestu izanaz ari naiz, urtarrilak 11ko manifestazioaren manifestuaren bi irakurleetako bat “terrorismoaren biktima” izateaz, Euskal Zaletuei elkartasun keinua ukatu izanaz, Gara egunkariak beste behin ere Ekialde Hurbilean jasan diren eraso inperialisten aurrean AEBekin erakutsitako konplizitateaz edota urtarrilaren 30eko greba orokorrari eman nahi dioten izaera alderdikoiaz. Gertakari hauek Ezker Abertzale Ofizialistaren jardun politiko erreala aditzera eramaten gaituzte, erretorika eta diskurtso sasi-erradikalak albo batera utzita, predikatzen denaren eta errealtatean bultzatzen duten politikaren arteko distantzia erraldoia erakutsiz. Aurrez aipatutakoaren eraginez, Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa ortzi-muga dugunon artean luzaroan mantendu den eztabaida berpiztu da: 1) Ezker Abertzalearen oinarri soziala eta printzipio estrategikoak mantendu, “Zutik-zaleen” bidetik aldentuz – horretarako plan errealista bat proposatuta – eta “oinarri klasikoetara” berrekarri; ala 2) printzipio

politikoak mantendu, estrategia berrikusi eta subjektu eta mobilizazio eredu “berriak” miatu. Pertsonalki uste dut lehenengo aukera ez dela bideragarria politikoki, Ezker Abertzalearen oinarri soziala oro har, eroso baitago bere posizio politikoekin eta bizi ereduarekin. Neurri batean aurrez esandakoaren ondorioz, EHn independentziaren eta sozialismoaren aldeko mugimendu berri baterako beharrezkoa den masa mugimendua beste nonbait aurkitu behar dugula uste dut, beste ezaugarri batzuekin eta iraganaren gaineko errebisio estrategiko sakon bat eginaz. Bigarren aukerak zenbait erronka iragartzen dizkigu, eta hausnarketa horretan sakontzea da testu honen asmoa.

Eremu militantean historiaren ikuskera materialistaz mintzatzen gara maiz, eta gehiegitan mundua ikusi eta ikasteko modu hau naturalki jaso dugunaren ustean aritzen gara. Susmoa daukat sarri hau ez dela horrela izaten, gertaera zehatzak eta prozesu politikoak azaltzeko pertsonalismoetara jotzeko joera baitugu. Honek gertaera historikoen konplexutasuna pertsonaia eta pasarte “mitikoengatik” ordezkatzera eramaten gaitu, eta kontakizunaren sinplifikazioak aurrera begirako hipotesi estrategikoak zuzentasunez egitea zailtzen du. Honela, adibidez, Ezker Abertzaleko oinarri soziala bala miresten dugu, eta gure kritika

zuzendaritza politiko zehatz baten traizioaren kontaketa mugatzen dugu, “engainu eta azpijokoen” bidez historia azaltzeko ilusio pean. Dena dela, uste dut pertsonaia zehatzek eta eurek hartutako erabakiek badutela garrantzia historiaren pasarteetan, baino nekez azaldu genitzakeela prozesu politiko eta sozialen loraldi eta gainbeherak historiaren protagonista errealak diren masa zabalen bizi baldintzak, ideologiak eta gizartea ordenatzen duten indar harremanak azaldu ezean. Bestela esanda, mugimendu politikoen garaipen eta porroten analisia egiterako orduan, gizarteari bere osotasunean bota behar diogu begirada, eta horretarako ezinbestekoa da masa zabalen bizi baldintzei kasu egitea, hots, gizartearen klase analisia burutzea. Era berean, estrategia iraultzaile orok aurrez gauzatutako borroka esperientzien akumulazio eta sintesia izan behar du oinarrian, hau da, iraganeko esperientzietatik irakaspen estrategikoak ateratzea lehentasunezkoa da prozesu sozialistarentzat.

Zentzu honetan mintzo naiz *beharrian* eta *kontingentziaz*. Propaganda antikomunistak behin eta berriz errepikatu du marxismoak beharrian sistema bat duela bere fundamentuan: sinpleki esanda, komunismora bidea ekidin ezina dela omen dio Marxen teoriak, historiaren ikuskera teleolo-

Nekez azaldu genitzake prozesu politiko eta sozialen loraldi eta gainbeherak historiaren protagonista errealak diren masa zabalen bizi baldintzak, ideologiak eta gizartea ordenatzen duten indar harremanak azaldu ezean

gikoa oinarritzat hartuta. Aitzitik, komunismora bidea trakestu denez marxismoaren iragarpenak gezurtatu direla diote “historia osteko” profeta berriek. Komunistok, ordea, soberan dakigu garaiaren giltza ez daukagula borroka hasi aurretik ziurtatuta, eta beharrian historikoez iraganaren balantzea egitean soilik mintzatu gaitezkeela. Nola eta zergatik jaio zen kapitalismoa, zein izan ziren gizarte burgesaren hedapena baimendu zuten indar motoreak, zein fundamentu ekonomikoren birtartez biderkatzen duen bere boterea burgesiak eta abar luze bat aurkitu genitzake ekonomia politikoaren kritikaren galdera eta erantzunen artean. Antzerako galderen aurrean aurkitzen gara mugimendu politikoaren balantzea burutzerakoan : zerk eraman du mugimendu hau porrotera, zein izan da mugimendu politiko honen klase konposizioaren bilakaera eta zein fundamentu estrategikok ahalbidetu du klase sozial hauen lidergo politiko eta kulturala, beste hainbat galderen artean. Kontrara, politikari gaurkotasunez begiratzen diogunean posibilitate ezberdinen aurrean aurkitzen gara, eta aukera hauek indar-harreman materialengatik baldintzatuta ageri zaizkigu. Klaseen arteko indar-harremanen kalkulu egoki bat egiteko ezinbestekoa da errealitatearen ezagutza zorrotz batetik abiatzea, eta horretarako esperientzia historikoen jakintza konplexu bat dugu beharrezko, *traizio, mito eta pertsonalismoetatik* haratago doana.

Esan berri dudana Ezker Abertzalearen historiari atxikitzen badiogu, nekez ondorioztatuko dugu bere oinarri historikoen porrot ofiziala – haustura independentistaren ukapena eta proiektu sozialistaren desagerpena – norbanako zehatzen traizioaren ikuspuntutik. Bide hau jarraitzen badugu, Ezker Abertzalearen historia indar-harreman eta interes materialen aldetik azaltzea ukatzen dugu eta azalpen psikologistak eta diskurtsibo-linguistikoak ematera mugatzen gara, gu izan ezik beste guztiak inozoak direla edo engainatuak izan direla ondorioztatuz arte.

Mugimendu politiko orok mobilizatu dezakeen masa bat du beharrezko, eta egungo Ezker Abertzale Ofizialistaren kasuan premia ekonomikoak asebeteta dituzten masa nazionalistak lehenetsi dira, klase ertaina mobilizatu daitekeen modu bakarrean: oso noizean behin, sinbolikoki, permormance bidez eta batez ere elektoralki. Guk klase estratu hauek *burgesia txiki* eta *langile aristokrazia* bezala izenpetzen ditugu, eta uste dugu galdera estrategiko egokia honakoa litzatekeela: zein oinarri estrategikok ahalbidetu zuen ENAMen gidaritza klase estratu anti-iraultzaile eta antikomunista hauek eskuratu izana eta zein kontzeptu estrategikoren bidez ekidin genezake Euskal Herriaren askatasunaren aldeko proposamen bakarra euren izatea – nolanahi ere, gauzatu ezina dena –.

Honenbestez, Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntzaren ikuspegitik lehenetasunezko zenbait eztabaida eta betebeharrak militante identifikatzen ditut, hurrenez hurren:

- Euskal Nazio Askapen Mugimenduen historia ikuspuntu materialista eta marxista batetik ikertzea, historiaren ezagutzatik irakaspen politiko aktualak eskuratzerantz bidean.

- Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntzan mobilizatzeko aktibo izango den klase estratuaren identifikazio egokia egitea, proletarioaren premia materialak ezagutuaz eta testuinguruaren gerturapen osatu batetik eratorriko dena.

- Subjektu proletarioaren mobilizazio eredu birpentsatzea. Bestela esanda, masa alderdi komunistaren antolakuntza eta Euskal Estatu Sozialistaren bidean aurrera pausu praktikoa eta teorikoak ematea. Honekin batera, nazio auzian klase antagonismoa barnebiltzea, euskal nazio burgesaren kontzeptuari euskal nazio proletarioaren eraikuntza kontrajarritik.

- Ezker Abertzalearen historia, pertsonaia eta militanteekin hurbilpen afektibo eta efektiboak egitea, ezaugarri estrategikoak dituzten eztabaidak ahalbidetuz eta konbergentziak lehenetsiz. /

DIRURIK GABEKO LEGEA EZ DA LEGEZKOA

IKUSPUNTUA

Martin
Goitiandia



Pasa den abenduaren 28an urtebete igaro zen Madrilgo gobernuak pentsio publikoen balioa handitzeko eta «presazko» beste neurri sozial batzuk hartzeko 28/2018 errege-dekretua argitaratu zuenetik. Dekretu horrek unibertsitateetako zein Lanbide Heziketetako ikasleen kanpo-praktikak Gizarte Segurantzaren kotizatzea beharrezko bihurtu zuen. Orain arte, ordaindutako praktiketan besterik ezin izan da kotizatu.

Lan Ministerioak testua aurkeztu eta berehala, CRUEk (Conferencia de Rectores de Universidades Españolas) «unibertsitateekin kontsultatu gabeko» neurri horrek «unibertsitateentzako onartzeko zaila izango zen arazo ekonomiko bat» suposatzen zuela adierazi zuen. Jarraian azaldu zen CEOE (Confederación Española de Organizaciones Empresariales) «inposizio» horrek eragingo lituzkeen «enpresentzako kostu igoerek» praktikak arriskuan jarriko zituela esanez.

Berez, testu legalak hiru hilabeteko epea ezartzen zuen indarrean jartzeko, garapen zehatzago bat izan zezan. Hilabete erdia pasa zenerako, gobernuak errektoreekin bildu eta 2019-2020 ikasturtera (ikasturte hau) arte indarrean ez sartzea erabaki zuten, eta, halaber, ez dirudi datorren ikasturtean

indarrean egongo denik. Gainera, kotizazio horiek ordaintzearen pilota bata bestearen teiltatura jaurtitzen hasi ziren berehala: enpresek unibertsitateei esan zieten kostu hori haiek ordaindu ezean praktikak bertan behera utziko zituztela, eta unibertsitateek azkar lortu zuten gobernuak kostuaren karga handi bat bere gain hartzeko hitza ematea.

Ikustagun orduan: zein dira, urtebete ondoren, atera ditzakegun ondorioak? Gobernuak aurpegia garbitu du, neurri honekin 534.000 ikasle lagunduko dituela esanez (gogoratu ordutik bi hauteskunde orokor izan ditugula); praktiketan dagoen lan indar merkea erosten duten enpresek zentimo bat ere ez dutela ordainduko ziurtatu dute; eta langile klaseko ikasleek hiru aukera izango dituzte: orain arte bezala praktiketan doan lan egitea, praktikarik gabe geratzea edo kotizazio hori beren familiek ordaintzea (beharko den diru publikoa beren zergez finantzatzeko baita). Baldintzen hobekuntza izan behar zuen hori, beraz, aurkeztu bezain laster erori da.

Izan ere, errentagarritasuna kolokan jartzen deanean, balorez beterik duten diskurtsoa behera dator, erabat. Horregatik zioen CRUEk bere adierazpenean «praktika akademikoak balioestea» pozgarria zela, bere presidenteak, aldiz, «unibertsitateak ezin du ordaindu, ezinezkoa da» zioen bitartean. Unibertsitateei ez zaie bidezkoa iruditzen kotizazioak haiek ordaindu behar izatea, baina beste aldera begiratzen dute beren ikasleak baldintza negargarrietako praktiketara bidaltzen dituztenean. Lan egitearen truke ORDAINTZEN duen langilea; edozein kapitalistaren ametsik ederrena, dudarik gabe. Kurioso da Espainiako errektoreen elkartearen denak, neurria argitaratu bezain laster, kotizazioak eurek ordainduko dituztela suposatu izana. Ez al ditu, bada, kotizazioak ugazabak ordaintzen? Baina lasai, CEOEk argi azaldu du zergatik ez dituzten haiek ordainduko: «Europar Batasuneko herrialde guztietan Gizarte Segurantzako kotizazioak soldatari lotuta doaz. Neurri hau kotizazio sistemaren perbertsio bat da». Praktiketako lanak ez ordaintzearen basakeriarekin nahikoa ez, eta, gainera, aitzakia hori bera erabiltzen dute kotizazioak ez ordaintzeko. A zer festa! Azken finean, kotizazioekin gora eta behera aritzea itxurakeria hutsa da, praktiketako lanen auziaz orokorrean hitz egiten ez badugu.

Orduan: lege bat egin dute baina ez dituzte epeak bete, edukia onartu behar zutenek (unibertsitateak, patronala) ez dute onartu, lortu behar zuen eraginarekin aurkakoa eragin du (langileen baldintzak hobetzea) eta, gainera, hasieratik argi zegoen hau gertatzeko zela. Nola azaldu daiteke? Bada, burgesiaren

Benetako hobekuntzak langile klaseak antolakuntzari esker lortutako posizio indartsuago baten bidez lortzen dira, ez burgesiaren sektore aurrerakoiago edo atzerakoiago bat Estatua kudeatzen ibiltzeagatik

sektore baten maniobra bat besterik ez delako, ez proletalgoaren bizi baldintza materialen hobekuntza erreal bat.

Azken finean, neurri honen bultzatzaileek ez dute praktiken egoera prekarioa buruan: horregatik berandutu da ezarpena, berehala ezarriko zela esan bazuten ere; horregatik langileek ordainduko zituztenean (soldatetik atera arren); horregatik atera zuten legea korrika eta presaka inorekin kontrastatu gabe... Aztertu behar duguna, beraz, ez da burgesiaren sektoreen batek edo besteren batek egiten dituen antzerkiak, horien ondorio materialak zein diren baizik, bestela, burgesiaren joko parlamentarioan eroriko ginateke.

Ariketa oso sinplea da: neurri bakoitzak burgesia edo langileria indartzen du. Langileria indartzen

duen neurria langileriak inposatzen du. Ikusi dugu, bestela, kotizazioak ordaintzeko neurri bat nola bihurtzen den aplikatzen ez den edo aplikatzekotan langilearentzat kaltegarria den lege batean. Hauteskunde edo prentsako eztabaidetarako praktikak ordaintzeari buruz propaganda egin dezakete, baina, azken finean, langileria galtzen aterako da. Benetako hobekuntzak langile klaseak antolakuntzari esker lortutako posizio indartsuago baten bidez lortzen dira, ez burgesiaren sektore aurrerakoiago edo atzerakoiago bat Estatua kudeatzen ibiltzeagatik. Dena den, «progresismoaren» antzerkia langileon aldekoa dela sinesten duenak apustua egin dezake: orain ministerio propioa sortu zaigu unibertsitatean M-15 mugimenduko kide bat buru duela, ikusiko dugu zenbat antzerki eta zenbat hobekuntza ditugun. Ja! /

“UTIKAN EUSKADI SARIAK” ALA KULTURAREN ANTOLAKUNTZA ANTAGONIKOA

IKUSPUNTUA

Aitor Bizkarra




Duela hamahiru urte, 2007ko urtarrilean, krisialdi kapitalistaren aurretxoan, “Euskadi Sariak” izeneko artikulu bat idatzi zuen Jon Alonso idazle nafarrak *Argiaren* Euskal Kulturaren Urtekarian. Artikuluak Euskadi Literatura Saiaraz eta, zehazkiago, delako literatur sariaren gaineko aginte gaitasunaren jabegoaz ziharduen. Ez, baina, saria barrutik ustela dagoelako eta espreski literarioak ez diren hainbat gorabeherak eragiten diotelako uste intuitiboz, ezta topikoetan oinarrituz ere, Itzulpen Sariko epaimahaikide izan denaren lekukotasun asaldatzuz baizik. Dirudienez, epaimahaikideak ez ziren sariaren eta sarituen gainean erabakitzen zuten bakarrak izan, gizon bitxi bat agertu baitzen bilerara mugimendu irregularrak egiten saiatu zena besteen harridurarako: “gero jakin ahal izan nuen, edo hala esan zidaten behintzat, bileran sartu zen polizoa, zazpigarren gizona, kulturako funtzionarioa zela, organigraman oso goikoa”. Artikulu horrek hauspotutako eztabaidaren txingarretan, “Utikan Euskadi Sariak” izeneko manifestu bat sinatu zuten hainbat euskal idazle sonatuk Euskadi Sarian parte hartzeari (zehazkiago, parte hartzea borondatezkoa ez zela eta, haien lanak bertan erabiliak izateari) uko eginez. Arrazoien artean zeuden, “sarion helburua, funtsean, egungo aginteari otza-

na zaion jardun intelektual eta literario bat sortzea” zela eta “jardun intelektual libre eta kritiko, kultura anitz, garatu eta agintearekiko autonomo baten alde” egonik, ez zutela “horrelako parametroetan neurtuak izan nahi”, izan ere, “zeharka bada ere” haien “lanaren kalitatearen gaineko balioespena zein gutxiespena” ezartzea ez zuten organigraman oso goiko bidelapurren esku utzi nahi.

Aste bi ez dira izango, berriz, Paul Beitiak kazeta honetantxe Durangoko Azokaren (masokaren?) inguruko kritika zorrotz bat idatzi zuela, kulturaren merkantilizazioaren eta merkatuaren hegemonia sozialak eragiten duen kultura motaren ikuspegitik. Bertan, euskal kulturaren ausia marko merkantilaren parametroez harago pentsatzeko ezintasunak dakartzan arazoez ziharduen, besteak beste. Bai luma zoliz jardun ere!

Esango nuke, kritikaren bi adierazpide horiek (administrazio kulturalaren izaera mafiosoaren aurreko asaldaketa, bata; analisi egiturazkoago eta egituratuagoa, bestea), artearen gaineko botere burgesarren aspektu bi seinalatzen dituztela, administratiboa eta merkantila, hurrenez hurren, egungo arte ekoizpen ia ororen existentzia baldintza bihurtu den azpiegitura konplexu bat osatzen dutenak. Merkatuak eta administrazioak determinatuta



Arte ekoizpen antagonikoa, instituziogintza antagonikoak ahalbidetuko du soilik, lehen esan bezala, arteak ez daukalako oinarri artistikorik, sozial, ekonomiko eta politikoak baizik

ageri dira, besteak beste, galeria eta museo zirkuituak, autonomia erlatibo gehiago ala gutxiagoko argitaletxe sareak, sarien, beken eta mekanismo ezberdinen bidezko prestigio artistikoaren banaketa prozesuak, eta abar luze bat. *L'art pour l'art?* Kar, kar, kar. Artea ez da autonomia, ez dauka oinarri artistikorik. Gaur egun artea (jarri artearen tokian euskal kultura ala x) sostengatzen duen azpiegitura konplexuak izaera ekonomiko eta politikoa du, eta horrek mundutxo horretako partaideei eragiten dien dependentzia egoera ia guztizkoa da. Belaunikitzen ez dena eromenera, politoxikomaniara, miseria gorrira eta, kasurik onenean, bakardadera edo isolamendu instituzional eta merkantileria kondentatua dago (ikus, Rimbaud, Poe, Villon, Plath...). Ea, azken hau agian piska bat esajeratua gelditu zait. Gaur egun inor ez dago literaturagatik literalki bizitza emateko prest. Sasoi hori pasa zen.

Benoa, natorren harira. Beitiak, testuaren bukaera aldera, zera zioen iradokitzaile bezain zehatz: “Gure premia errealei erantzuneko dien kultur produkzio-rik ez da egongo produktibitate kapitalistaren baitan eta horregatik erantzuneko diogu guk harekiko antagonikoa izango den kulturaren antolakuntzarekin”. Ohar zaitzete ez duela “antagonikoa izango den kultur ekoizpenarekin” edo “arte ekoizpenarekin” esaten, “kulturaren antolakuntzarekin” baino. Izan ere, “arte” deritzen kulturaren adierazpen konkretuak aztertzerakoan, bereizketa garrantzitsu bat egin behar da; batetik, haien ezaugarri intrintsekoen (obrarren edukizko edo formazko ezaugarrien) artean eta, bestetik, obrok posible egiten dituen oinarri materialaren edo inskribatuta dauden zirkuituaren artean. Eta bereizketa egin behar da, batez ere, aspektu bi horiek elkarrekin nola erlazionatzen diren ulertzeko. Barkaidazue askatasun interpretatibo gehiegizkoa erabiltzea bada nik idatzia ez den testu batek funtsean zer dioten esaten saiatzea, baina, nago, seinatzen dena ez dela, zehazki, adierazpen kultural konkretu baten eduki diskurtsibo eta formalak izaera erradikal eta apurtzaile bat izan be-

har duenik “gure premia errealei” erantzuteko (izan behar lukeenik ukatu gabe, eh), ezpada adierazpen kultural horiek posible egingo dituen eta sostengatuko dituen azpiegitura bat eraiki beharra dagoela independentzia politikoan eta ekonomikoan oinarrituta. Horietxek baitira gure premia errealeak bai politikoki eta bai artistikoki: eskala sozialean langileriak kontrolatutako espazioak, ekoizpen eta hedapen bitartekoak, komunikabideak, elkarguneak... horiek baitira benetan indar plastikoaren gaineko kontrola ematen dutenak.

Indar plastikoa forma emateko gai den indarra da, eta esan dezakegu lana dela gizakiaren indar plastikoaren espresio behinena ez bada, oinarritzkoena; lehengaiari (eta, azken buruan, gizarteari) forma emateko gaitasuna, gizakia objektuan proiektatzekoa. Gaur egun, ordea, gizateria osoaren indar plastikoa norabidetzeko agente gaitasuna burgesiak dauka kontzentratua, ekoizpen sozialaren bitartekoen jabe den heinean, eta ekoizpen kulturala ez dago, inondik ere, hortik salbu. “Norabidetzeko” diot, ez duelako erabat edo absolutuki determinatzen, hegemonikoki baizik; badagoelako indar plastikoa antagonikoki edo ordenamendu sozial kapitalistari oposizioan norabidetzen hasteko aukerarik, baina hori langile klasearen botere propioaren erakuntza estrategiaren eskutik etorriko da ezinbestean, estrategia sozialista iraultzailearen eskutik. Arte ekoizpen antagonikoa, instituziogintza antagonikoak ahalbidetuko du soilik, lehen esan bezala, arteak ez daukalako oinarri artistikorik, sozial, ekonomiko eta politikoak baizik.

“Utikan Euskadi Sariak” manifestuaren bitartez egin zutena (sinatzaileetakoren batek edo bestek gerora sari hau jaso duela esan beharra badago ere) zinez interesgarria da, zerbaiten aurkako erreakzio bezala zerbait horren sintoma delako. Dena den, kritika edo erreakzio kultural bat ez da politika kultural positibo bat, baietarik ez da ezaren guda hutsetik sortzen: horretan datza indar erreaktiboaren eta plastikoaren arteko ezberdintasuna. /

Soldataren desartikulazio politikoa helburu

Prezio hori ezartzeko, hainbat aldagai erabiltzen dira. Klase ertainaren itxaropen frustratuek gehien erabiltzen dituztenak ikasketak eta erantzukizuna dira, soldata-eskala eta klasearen estratifikazioa betikotzeko aukera ematen

Soldata zehazterako orduan, zientifikotasun ekonomikoa bilatzen duen asmo orok porrot egingo du nahitaez. Soldata lanaren ordainsari gisa definitzen duen formula klasikotik harago, edo Marxen teorian sostengatzen direla dioten teoria landuagoetatik harago – zeinak soldata lan-indarraren balioari deitzeko beste modu bat dela defendatzen duten, edota soldata mekaniko-ki diru magnitudera murrizten duten – ikuskerara horietako bakar batek ere ez du azaltzen soldata menderatze-kategoria politiko gisa, ez jada boterearen

[illegible]

[illegible]

Jada kontua ez da boterearen ekoizpen abstraktu hutsa, baizik eta horren benetako errealizazioa gizarte kapitalistaren azaleran. Eta eremu horretan, menderatze zehatzaren eremuan, soldata, lan indarraren balioaren forma transmutatu gisa, burgesiaren botere modua azaltzeko kategoria ezinbestekoa da

ekoizpenaren arloan, baizik eta errealtazio eskalan, estuki lotuta soldata horren forma sozialarekin: dirua.

Marx bera da abstrakzio sinplifikatzaile hori gainditzeko duena – *lan-indarraren balioa soldatarekin berdintzen duena, kapitalaren ekoizpen-prozesua eraikuntza logiko hori lainotzen duen kategoria orotik gabetua azaltzeko helburuarekin* –, eta soldata funtzio mistifikatzailea betetzen duen lan-indarraren balioaren transmutazio gisa aurkezten duena. Hain zuzen ere, transmutazio eta ideologizazio, prozesu hori guztia da, gure ustez, ahaztua izan dena eta gutxitan jorratu dena, eta soldata zientifikotasun ekonomiko faltu batera mugatzea ahalbidetzen duena, burgesiaren klase-menderatzearen produktua; soldatapeko klasearen borroka-ahalegin oro despolitizatuz modu honetan.

Transmutazio-prozesuak funtsezko bi ezaugarri ditu: 1) klase esplotazio harremana ezkutatzea eta 2) soldataren bidezko estratifikazioa eta menderatzea. Biak dira soldataren funtzio politikoak, baina lehenengoa kapitalaren ekoizpen prozesuan lan indarraren forman sakon aztertu den bitartean, bigarrena, berriz, aztertzea merezi ez duen itxura hutsera mugatu da. Jada kontua ez da boterearen ekoizpen abstraktu hutsa, baizik eta horren benetako errealizazioa gizarte kapitalistaren azaleran. Eta eremu horretan, menderatze

zehatzaren eremuan, soldata, lan indarraren balioaren forma transmutatu gisa, burgesiaren botere modua azaltzeko kategoria ezinbestekoa da.

Alde batetik, burgesia esplotatzailearen klase boterearen ekoizpenean datzan sistema kapitalistaren dinamika objektiboa (gainbalio erlatiboaren ekoizpena) langile klasearen bizi baldintzen itxurazko aurrerapen baten atzean ezkutatzen du (soldata erreala). Baina, bestetik, eta hona hemen soldataren funtzio politikorik berehalakoen, langile klasearen baitan subjektu burgesa osatzen du, klase osoaren gaineko, eta bereziki proletalgoaren gaineko kontrola ezartzea lehentasunezko funtzioa duena. “Gutxieneko soldata” bezalako kontzeptuek – *argi eta garbi, bere merkantzia “etikoen” kontsumo-merkatua handitzea bilatzen duen klase ertainaren interesetatik eratorria* –, “soldata berdintasuna” kontzeptuari erabat kontrajartzen zaizkionak, argi uzten dute justizia unibertuala jada ez dela bilatzen dena, baizik eta estratu baten iraunarazpen politiko partziala, beste bati gainjarriz burutzen duena.

Klase boterearen ekoizpenari dagokionez, soldata erlatiboa ilundu egiten da, soldata errealaren forma hartzen duten berehalako beharraren aurrean. Azken hori koiunturalki ere haz daiteke, lehenengoak behera egin eta langile-klasea bortitzago esplotatzea baimenduko duten kateak irmoago

forjatzen diren bitartean, baita soldata erreala edo “kontsumo-gaitasuna” murriztu arte ere. Ez dago zalantzarik menderatze ekonomiko horren eta bere eduki politikoaren arteko harreman estuaz, klase menderatze harreman gisa.

Soldataren bidezko estratifikazioari eta menderatzeari dagokionez, berriz, analisiak beste kutsu bat hartzen du. Jada ez da berehalako eta zuzeneko premia ekonomiko bat, hau da, lana gainbalio handiagoa ateratzeko ustiategia, baizik eta zeharkako ustiapen bat, politikoki menderatzeko beharrak bitartekatua. Hau da, soldata erlatiboak klase dominazioa oinarri duen botere ekonomikoaren ekoizpen-prozesuari aipamen zuzena egiten badio, soldataren bidezko estratifikazioa zuzenean menderakuntza politikoari dagokio, eta jada, ez datza gainbalioaren ekoizpen zuzen batean, baizik eta haren kenkari edota murrizketan: mendekotasunaren prezioa da, baina baita proletalgo iraultzailearen aukeren aurka kontzienteki artikulatutako lanaren prezioa ere; obedientziaren prezioa.

Hor sartzen da klase ertainaren definizioa, prezioaren alorretik harago, klase politiko gisa, zeinak ondo ordaindutako lanpostuak ez ezik, berariazko postuak betetzen dituen erakunde burgesetan: izan Estatuaren administrazioan, erakunde alderdikoen edo sindikalen postu burokratikoetan, zein kapitalaren aginte botere autoritario

“Gutxieneko soldata” bezalako kontzeptuek – argi eta garbi, bere merkantzia “etikoen” kontsumo-merkatua handitzea bilatzen duen klase ertainaren interesetatik eratorria –, “soldata berdintasuna” kontzeptuari erabat kontrajartzen zaizkionak, erakusten dute zein punturaino ez den jada justizia unibertsala bilatzen dena, baizik eta estratu baten iraunarazpen politiko partziala, beste bati gainjarritz burutzen dena

Soldata erlatiboak klase dominazioa oinarri duen botere ekonomikoaren ekoizpen-prozesuari aipamen zuzena egiten badio, soldataren bidezko estratifikazioa zuzenean menderakuntza politikoari dagokio, eta jada ez datza gainbalioaren ekoizpen zuzen batean, baizik eta haren kenkari edota murrizketan: mendekotasunaren prezioa da, baina baita proletalgo iraultzailearen aukeren aurka kontzienteki artikulatutako lanaren prezioa ere; obedientziaren prezioa

gisa. Klase ertaina klase politikan parte hartzen duen forma politiko bat da, beti proletalgo iraultzailearen politika eragotziz, edo politika burgesa soilki politikan bihurtuz, ideologia dosi handiekin bere interesak defendatzeko indar material gisa egituratzen dena. Horregatik, klase kontzientea da, interes horien defentsan kontzienteki jarduten duena. Eta bera da, azken batean, soldata bere azaleko adierazpenean sozializatu eta ideologizatzen duena: egingdako lanagatik ordain gisa, ordutan, zeinari justizia egin behar zaion klase estratifikazioaren printzipio elitisten arabera, eta ez gainbalioaren – *eta hortaz, klase zapalkuntzaren* – eta ekoizpen kapitalistaren trikimailu guztia zaintzen duen kategoria gisa. “Gutxie-

neko soldata”, posible denaren printzipio bezala, posible dena jada eratuta dagoen, eta bere biziraupena bilatzen duen, subjektibotasunetik abiatuta zedarritzen duen kategoria da errealitatean. Proletalgoak, ordea, ez du halako mugarik ezagutzen.

Transmutazioaz ari garenean, ez gara ari, horregatik, eraldaketa terminologikoaz. Aitzitik, sistema kapitalistaren gainazalean ematen den esentziaren beharrezko agerpena da prozesu horretan azaleratzen dena eta gorputz sozial osoarekin berehalakoan elkar eragiten duena. Manifestazio hori, prozesu hori, hegemonia burgesaren puntu nodala da. Horregatik, proletalgoak, kontsigna abstraktuetatik urrun, soldata-borrokan interbenitzera be-

hartuta ikusten du bere burua, burgesia eta bere aldekoen partetik jasaten duen estratifikazioa eta mendetasuna – *proletalgoa bera politikoki desartikulatzen dutenak* – desegituratzea ahalbidetuko duten tresna eta aldarrikapen propioekin. Soldata-borroka hori ez da mugatzen soldata berdintasunaren aldeko borroka izatera, eta ez du forma hori nahitaez hartu behar. Klase etsaiaren botere politiko eta ideologiko guztia interbenitzea eta desartikulatzea da auzia, baita arlo horretan ere. Horregatik, bada ere, eta bereziki da, soldatapekoa ez den erreproduktzio forma baten aldeko borroka, benetako berdintasunaren baldintza dena. /

OHOLTZA AZPIKO ARTEAZ

IKUSPUNTUA

**Maddi
Sarasua**



**Aurreko hilabeteen idatzi nuen
ikuspuntuari kontrapuntua egitera
dator honako hau. Artistaren
figuraren inguruko galderak
dabilzkit buruan, eta sorkuntza
artistikoaren edukiaz baino, formaz
ariko natzaizue datozen lerrootan.
Artearen profesionalizazioaz
hausnartu eta oholtza azpiko arteaz
jardun nahiko nuke.**

Zoragarria da gurean otsaila. Bada bulta bat jada ahoan darabilkigula. Irrikaz bizi dugu Itsasuko lagun taldean urtaril amaiera, badatorrelako arte ekoizpenaz gozatzeko garaia, arte sorkuntza bizitzeko sasoia; badatozelako kaskarotak. Han abiatuko gara herriko gazte multzoa, baserri baserri, auzoz auzo. Hiru asteburuz dantzatuko dugu, kantatu egun guztian, koplaz mozortuko ariko gara ezin isilduz, hangoak eta hemengoak zirikatzeko. Hasiak gara plazan egiten dugun antzerkia idazten, eta laster iritsiko dira taldean entseatzeko uneak. Eta irri egiten dugu.

Ihauteriak herritarrekin gozatzeko uneak dira, elkarrekin sortzeko uneak, sorkuntza partekatzeak. Ihauterietan ez da oholtzarik; etxe atariak, egongelak, plazak eta karrikak beteko ditugu bertsoz, hainbat ahotsetan emaniko kantuz, musikaz,

dantzaz eta antzerkiz. Jendearen sukaldeetaraino sartuko da ekoizpen kulturalaren parte izateko gomitak, dantzan ez bada, kantuz hasiko dira familiak, edo istorioak kontatzen gazteen belarrietara, bertso ideien elikagai.

Heziketa artistikoari buruzko galdera luzatu nuen aitzineko artikuluan eta uste dut honelakoa izan dela enea. Hau ezagutu dut herrian, auto bidaietan aitarekin bertso kantari eta osaba zein lehengusuen artean noiznahi gitarra eskuz esku pasatzen. Batek doinua asmatu duela, besteak hitzak, eta hara familiako kantu berria. Elkarri Gabonetan eskuzko opariak egitea, idaztea...

Familia berexia dudala erranen didate, baina zerk berezitu edo bereiztu ditu artistak? Nola pasa gara sorkuntza artistikoa supazter xokoan, arto zuritzeetan, lagunarteko bazkarietan, ostatu erdian,



Bizi forma indibidualago bat daramagula izan liteke arrazoietako bat; bestea, gure gizartea lan indarra saltzean eta kontsumitzean oinarritua dagoela. Artea kontsumitzeko produktu bat bezala bizi dugu oro har, ez da jada hartu emanean elkarrekin sortu eta gozatzen den zerbait bezala ulertzen



lanean ari ziren bitartean... egunerokoan denek egitetik, pertsona jakin batzuek, oholza gaineko edo foku azpiko testuinguru jakinean egitera?

Eta uste dugu hori behar duela gure sorkuntza artistikoak irauteko: oholzak eta fokuak. Saioak antolatzeke diru laguntzak, literatura sariketak, zinemaldiak, jaialdiak, erakusketak... Gutxi batzuei fokuak eta dirua.

Baina artea goratzeko lurzorurik emankorra ez al da sorkuntza artistikoa egunerokoan bizi duen komunitatea? Asfalto idorrean jaiotako landareak dirdira zerbait egingen badu ere, taldean ureztaturiko baratze aberatsean ernalduko da lorarik ederrena. Naturalki eskuratzen dira arte sorkuntzarako gaitasunak, arte sorkuntzarako ohitura dagoen ingurune batean.

Iparraldeko Euskal Kultur Erakundearen webgunean irakurri dut ondorengo esaldi hau: «Arte-errealitate bat kontsumitu baino biziartzat dute emazteek eta gizonek partekaturik: oroz gaitetik, euskal kultura parte hartzaile eta herrikoa da». Hau noiz eta non da/izan da horrela? Esanguratsua da, hala ere, Ipar Euskal Herrian behintzat,

Ekoizpen artistiko mota hauek, kultura hegemonikoarekiko aurkakotasunean kokatzen dira, bai edukiz bai formaz. Euskaraz dihardute, boteredunen aurkako eta kritika sozialeko edukiekin. Baina interesgarriena, botere burgesaren formatatik at antolatzen direla da, botere burgesaren aspektu administratibo eta merkantiletik at, behinik behin

«euskal kultura» forma horrekin lotzea.

Argi da gizarte aurre-kapitalistetako bizi ereduari eta sistema kapitalistaren logikari loturik ulertu behar dela sorkuntza artistikoaren formazko aldaketa hau. Begi bistakoa baita gizarte antolaketa komunitarioago batean leku gehiago daukala arte sorkuntza kolektiboak, soldatapeko lanetik pantailaz beteriko pisu tipira antolaturiko bizian baino. Bizi forma indibidualago bat daramagula izan liteke arrazoietako bat; bestea, gure gizartea lan indarra saltzean eta kontsumitzean oinarritua dagoela. Arte kontsumitzeko produktu bat bezala bizi dugu oro har, ez da jada hartu emanean elkarrekin sortu eta gozatzen den zerbait bezala ulertzen.

Kabalkaden inguruko testua idatzi nuenean legez datorkit honakoan ere galdera: nola iraun ote du, gizarte antolaketa kapitalistaren baitan, sorkuntza artistikoa bizitzeko modu honek? Uste dut erantzuna ez datzala irautean, biziberritzean baizik. Hemen ere galtzen joan ziren ekoizpen kultural mota hauek. Esaterako 60. eta 70. hamarkadetan, modernizazioarekin, izugarritzko etena nabaritu zen. Garai hartan desagertu ziren, bizimoduaren aldaketekin batera, gisa honetako produkzio kultural motak herri gehienetan. Orduan galdu ziren Itsasun ere kaskarotak. Baina, beste leku askotan bezala, berreskuratzeari ekin zaio gerora. Uste dut erran genezakeela, berreskuratze hau euskara biziberritzearen eta abertzaletasunaren inguruko ideiekin loturik eman dela, eta, gaur egun ere, hein handi batean, inplikatuenean engaiamendua hortik datorrela.

Ekoizpen artistiko mota hauek, kultura hegemonikoarekiko aurkakotasunean kokatzen dira, bai edukiz, bai formaz. Euskaraz dihardute, boteredunen aurkako eta kritika sozialeko edukiekin. Baina

interesgarriena, botere burgesaren formatatik at antolatzen direla da. Azken artikuluan Aitor Bizkarrak aipatzen zituen artearen gaineko botere burgesaren aspektu administratibo eta merkantiletik at, behinik behin. Ez dute azpiegitura konplexurik, inizatiba eta motibaziotik abiatzen dira, bakoitzak beretik eman eta elkarrekin egin borondatezko lana dute oinarri; konpromisoa. Harrigarria zait, ene inguruko gazteek mugimendu politikoei duen engaiamendu urria ikusirik, mota horretako arte produkzioak aurrera eramateko erakusten duten diziplina.

Ez al ziren, hain justu, kolektiboari ekarpena egitea, konpromisoa eta diziplina eraikitzen ari garen kulturaren oinarrian jartzen genituen balioak? Aurreko ikuspuntu amaierako galderei so, uste dut arteak bete litzakeen funtzio politiko, sozial eta estetikoek beste dimentsio bat hartzen dutela arte produkzioa forma honetan pentsatuz gero. Bai gizartearen sentsibilitate artistikoa elikatzeke, bai proletarioen sorkuntza artistikoaren lagungarri sor genitzakeen bitartekoez hausnartzeko balio diezagukeela. Badaukagu hemen pista bat, artea botere burgesetik kanpo pentsatzeko.

Izan ere, ez dugu soilik oholtza gainean gure mezuak kantatuko dituen arte sorkuntza amesten, ez datza soilik edukian, arte produkzioa sortu eta elkarbanatzeko formari ere dagokio. Forma aldatzeko aldatzen baitu ezinbestean edukia.

Bestalde, ez dugu sustraiak kanporantz landaturik dagoen folk-loerik nahi. Ondotxo dakigu beste modu bateko gizarte antolaketa baten eraikuntzarekin batera emanen dela bestelako arte sorkuntza mota baten loratzea. Posible izanen ote da, lurzoru egokia eraikiz gero, arbasoen bizi ohituretako batzuk birsustraitzerik? /

Aberastasunaren banaketa, Nazioarteko Diru Funtza eta sozialdemokrazia

Harridura eta ezusteen garaia da egun bizi duguna. Ongizate Estatuan egon zen hala nolako sintesi sozialak nolabaiteko egonkortasunerako baldintzak jarri zituen gure gurasoen belaunaldietan, klase borrokaren potentzia lausotze bidean. Gaur, berriz, krisi kapitalista gisa definitzen dugun deskonposizio sozialak klase borrokaren sakontze prozesua dakar, eta, era berean, egonkortasunaren apurketak dakarren egoera atipiko –edo a priori atipiko gisa agertzen diren batzuen agerpena ere. Horrela jaso dut nik Kristalina Georgieva Nazioarteko Diru Funtseko (NDF, gaztelaniazko FMI) zuzendariak duela aste batzuk

argitaratu zuen artikulua(1): harriduraz eta ezustez.

Mundu mailako oinarritzko erakunde horren ordezkariaren iritziz, «berdintasunik eza mundu mailako ekonomiaaren arazo konplexu eta nahasgarrietariko bat bihurtu da», eta horren aurrean irabazi gehien dutenei zerga igoerak proposatzearen alde azaldu da, berdintasun sozialaren aldeko guardia izango balitz bezala. Orain arte, austeritatean eta gastu sozialaren murrizketa proposamenetan oinarritzen zuen bere estrategia NDFk, hau da, krisi garaitik aurrera Ongizate Estatuaren azken gotorlekuen murrizketetan eta merkatuaren liberalizazio

prozesu zabaletan, duela urte batzuetako Greziako kasuan edota ikasturte honetako Hego Amerikako altxamenduen hainbat koiunturatan ikusi dugun bezala. Beraz, irakurketa berri honen bitartez jarrera aldaketa posible batez mintzo dira ezkerreko komunikabide batzuk.

Dakigun bezala, bi klasetan banaturiko gizarte honetan helburu nagusi eta ukaezin batek gobernatzen du; finean, gero eta zabalagoa den kapitalaren metaketa eskalan, burgesiak gero eta diru gehiago pilatzeko aukera du, eta helburu hori gauzatzeko ezinbesteko engranajea da NDF. Gauzak horrela, irakurketa *progre* eta positibistetatik

Irakurketa “progre” eta positibistetatik aldentzea dagokigu guri, burgesiaren proposamen ekonomiko zein politikoak gurekiko antagonismoan inposatzen baitira, langileria osoaren antagonismoan hain zuzen

aldentzea dagokigu guri, burgesiaren proposamen ekonomiko zein politikoak gurekiko antagonismoan inposatzen baitira, langileria osoaren antagonismoan, hain zuzen. Artikuluan bertan azaltzen den bezala, Georgievak aipatutako helburuaren mesedetan kokatzen du planteamendua: aipatzen du ikuspuntu politikotik erreforma hauek gauzatzea zaila dela, baina hazkunde eta produktibitatean duten eraginak merezi duela, eta zuzenean gaineratzen du hori hazkuntza ekonomikoari uko egin gabe lortu daitekeela. Hemen dago zorroztasunez kritikatu eta izan ditzakeen ondorio politikoei buruz hausnartu beharreko auzia: erreforma sozialaren hautu burgesak kalkulu ekonomikoak ditu atzean –hazkunde eta produktibitate handiagoari buruzko kalkuluak, hain zuzen–, gaur egunera arte neoliberalismoak izan dituen zailtasunen aurrean konponbide biribilagoa aurkitu dutelakoan-edo. Ezin dugu jakin kalkuluak zuzenak izango diren benetan erreforma sozialaren proposamena aurrera eraman arte –efektiboki proposatzen bada behintzat–, baina mundu mailako erakunde garrantzitsuenetarikoa batek ez du pentsatu gabe hitz egiten. Aberastasunaren banaketaren tesira hurbiltzen ari bada ere, bere beharrianetan soilik pentsatzen du.

Baina ez da soilik produktibitate eta hazkuntza gaitasunen kontua, bertatik

eratorritako auzi batek garrantzia hartzen baitu: klase ofentsibak dakarren talka sozialaren areagotzeak gizarte kapitalistaren lehen lerroan kokatzen du ezegonkortasun politikoa. Goian aipaturiko adibideek konfrontazio horren erakusleho garrantzitsuak diren arren, tokian tokiko defentsa proletariorako formak ere –espontaneo zein kontzienteak– protagonismoa hartzen doazela azpimarratu behar da. Giroa horrela, administrazio burgesa jasaten ari den gidaritzak krisia ageriko oztopoa da kapital metaketak beharrezkoa duen egonkortasunerako. Honen aurrean, iraganak erakutsi du erreforma sozialaren aplikazioa proletalgoaren antolakuntza independentea zapuzteko proposamen eraginkorra dela.

Badago irakurketa horren ekuaizioan gehitu behar den agente garrantzitsu bat, garaiotan protagonismo ukalezina duena: erdi-mailako klasea. Aurreko mendeko esperientzia sozialistaren figura garrantzitsuenek estratu ezberdinen multzo hori kritika gai izan zuten, bakoitzaren momentu eta prozesu politikoan, eta guk ere halaxe egiten dugu, egungo koiunturan ezin dugulako alde batera utzi klase konposizioaren analisisa.

Motzean, erdi-mailako klasearen ezaugarri orokorra gizartearen mantentzen duen erdibideko posizio soziala da. Posizio hori forma ezberdinetan

agertu da momentu historiko konkretu bakoitzean, eta gaur egun ere funtzio politiko oso definitu bat azaleratzen du. Erdi-mailako klasea klase antagonismoaren neutralizaziorako erreminta politikoa da egungo koiunturan, efektiboki blokeatzen saiatzen baita burgesiaren aurka antolatu daitekeen aurkaria, hots, proletalgoa. Oro har, sozialismoaren eraikuntzarako oinarritzko baldintzak ekoizteko beharrezko kontzeptu politikoen –klase batasuna eta independentzia– aurkaria da.

Erdi-mailako klaseak duen posizio sozioekonomiko eta politikotik ideologia komuna eratortzen da, beraiek gizartearen egituraren duten posizioa bezain kontraesankorra dena. Haren tesi ezagunetako bat, proposamen ekonomikoaren *zenita*, aberastasunaren banaketarena da. Sozialdemokrazia deritzon forma politikoan antolaturiko erdi-mailako klasearen interesak soilik munduan ekoizten den aberastasunaren banaketa “injustua” kritikatzeko du. Ekoizpen harremanetik eratorria den baldintza soziala –kapitala edo soldatapeko lana– kritikaren errotik urrundu eta justizia soziala eta kapitalismo ona deritzona ditu helburu estrategiko gisa. Horrela, herria *versus* oligarkia edota ekoizpen (burges) txikia *versus* multinazionalak bezalako dikotomiak eraikitzen dituzte. Konkretuan, urtarrikak 30ean deituriko greba orokorraren

Bakoitzak helburu ezberdinei so egiten dien arren aberastasunaren banaketaren eta erreforma sozialaren aldeko tesiak partekatzen hasi dira paktu sozialaren aldeko bi sektoreak –burgesia eta erdi mailako klasea–

aldarriak jarri genitzake adibide gisa: aberastasunaren banaketaren tesia da oinarrian dagoena, eta, auzi taktikoa izatetik urrun, behin betiko helburu estrategiko gisa aurkezten da, helburu horren ondoren kapitalismoaren erroko arazoa ebatzita egongo balitz bezala.

Hori guztia horrela, koiuntura honetan zer daukate NDFk eta sozialdemokraziak antzekotasuntzat har dezakeguna? Illo Sozialistatik kritikagai dugun paktu sozial berriaren piezak elkartzen ari ote dira? Ikusi besterik ez dago Espainiar Estatuan osatu berri den gobernu, kutsu sozialdemokrata duena eta Estatuaren egonkortasun prozesurako fundamentala dena, momentuz. Bakoitzak helburu ezberdinei so egiten dien arren, aberastasunaren banaketaren eta erreforma sozialaren aldeko tesiak partekatzen hasi dira paktu sozialaren aldeko bi sektoreak, hots, burgesia eta erdi-mailako klasea.

Ezin dugu egungo paktu soziala egikartzeko aukera errealak zehaztu, ekonomikoki ezinezkoa denaren hipotesia baieztatzetik urrun dagoenean. Hala ere, jakin badakigu paktu sozial hau osatzekotan, proletalgoa osatzen dugunon potentzial eraldatzailearen aurkako tresna bilakatuko dela, eta hark hainbat puntutan mugatuko gaituela:

1) Langileriaren ehuneko handi bat –aurreko Ongizate Estatuan izan zena baino ehuneko handiagoa– paktuaren baldintzetatik kanpo geldituko da.

2) Estatu kapitalistaren egiturak espazio «neutral» gisa aurkeztuko dira etengabe–edo aurkezten ari dira jada–, eta antolakuntza proletario independenteek jazarpen politikoa jasateko arrisku erreala ekoitziko dute.

3) Ideologikoki sozialismoaren posibilitatea eta beharrezkotasuna beste hamarkada batzuetarako lurperatzeko baldintzak egongo dira.

Sozialismoaren eraikuntza gaurdanik elikatzen dugunontzako funtsezkoa da paktu sozialaren egikaritze posible baten aurkako kritika politikoa azaleratzea, haren aurrean langileriaren autodefentsarako instituzio independenteak eraikitzen goazen heinean, zeinak indar metaketa kualitatibo eta kuantitatiborako gaitasunak izango dituzten, Estatu burgesari kontrajarria zaion bostere erreala ekoiztuko duten, eta proletalgoaren diktadura ezartzeko helbururantz praktikan bideratua egongo den. /

(1) Kristalina Georgieva, Reducir la desigualdad para generar oportunidades: blog-dialogoafondo.imf.org/?p=12536

GREBA OROKORRAK: ERREALITATEAREN ETA ERRETORIKAREN ARTEAN

IKUSPUNTUA

**Adam
Radomski**



Azken boladan, mundu mailan, greben inguruan zenbait gertaera nabarmen izan dira: urtarrilaren 8an greba orokorrak 250 milioi pertsona mobilizatu zituen Indian, eta abenduaren 5ean hasi zen Frantzian bere historiako greba orokor luzeena izaten ari dena 68ko maiatzetik. 2018an, AEBetako irakasleek greba mugimendu handi bat hasi zuten, eta 2019an General Motorsen greba masiboa izan zen. Mexikon 70.000 langile mobilizatu ziren Matamorosen, eta azken urteetan Amazonek Poloniako, Alemaniako eta Espainiar Estatuko langileen artean koordinatutako grebak jasan behar izan ditu. Euskal Herriari dagokionez, Bizkaiko metalaren sektoreko greba garrantzitsu bat izan da, eta egun batzuen buruan greba orokor bat egongo da, lehenengoa aurreko hamarkadaren hasierako greba orokorren zikloaz geroztik.

Hala ere, animoak pizten zaizkigun arren, joera globalak ez dira uniformeak, eta kontuz ibili behar da gertaerak irakurtzeko moduarekin, ezin baitira hain erraz zaku berean sartu. Nire asmoa, bada, Europa mailako greba mugimenduak aztertzea da, batez ere berrienak.



Gaur egun, European, greba orokorrak gobernu baten aurka deitu ohi dira, orokorrean nazio mailan, erreforma proposamenen aurka protesta egiteko. Deialdia egin duten sindikatuak, beraz, garrantzitsuak dira gobernuentzat, hauteskundeetako emaitzetan eragina izandezaketelako

GREBA EZAUGARRIAK ETA MOTAK

Garai batean, greba orokorrak “klase borroka aldi baten bateratze ekintza” moduko bat ziren, Rosa Luxemburgok esango lukeen bezala. Urteetako edo hamarkadetako gatazken (greba partzialak, arlokoak, lokalak ...) ondorioz masen greba izugarriak izaten esan nahi zuen. Beraz, Rosak ohartarazi zuenez, ez ziren dekretuz sortzen, eta ez ziren egun batetik bestera deitzen, baizik eta aurretik beste klase mugimendu batzuk izaten zituzten. Adibide moduan balio dezakete elkartasun greba ugariak, esaterako 1970eko hamarkadaren hasieran Iruñerriko Potasasasekoa edo Etxebarrikoa, greba orokor bihurtu zirenak. Rosak ere aipatzen du masen grebak (edo orokorrak, nahi bada) borroka eskola bat direla; izan ere, bandoak argi gelditzen dira— errepresioak lagundu egiten du horretan, zalantzarik gabe —, eta, aldi berean, masa zabalen kohesioa eta antolaketa praktikatzen da.

Greben izaera, beste faktore batzuen artean, herrialde jakin bateko kapitalismoaren egoeraren araberakoa da. Historian zehar greba mota ezberdinak egon dira (Losovskyk 13 kategorizatzen ditu): lehen sindikatuekin, goranzko kapitalismoan, altxamendu desesperatuak ziren, eta, ondoren, Lehen Mundu Gerraren atarian, grebak proletarioen bizi baldintzak hobetzera bideratuta zeuden, baina kapitalismoaren markoaren barruan. Izaera ekonomikoa zuten greben helburua eskaera konkretuak lortzea zen, ondoren lanera itzultzeko. Bestalde, greba politikoak askatasun zehatzak lortzera bideratuta egon zitezkeen: legez kanporatutako langile erakundeen sufragioa edo errekonozimendua (Ingalaterrako mugimendu kartista XIX.m.). Klase kapitalistaren organo exekutiboaren aurka jo ohi zuten: gober-

nuaren aurka, patroien baten edo talde baten aurka baino. Kapitalismoaren garai dekadentearen ezau-garri diren greba orokor iraultzaileak, politikoak eta masen grebak ere nabarmendu nahi nituzke. Botere burgesa eraistea planteatzen zuten, matxinadaren atarikoak izanik, 1934an Asturiasen bezala.

GAUR EGUN

Gaur egun, European, greba orokorrak gobernu baten aurka deitu ohi dira, orokorrean nazio mailan, erreforma proposamenen aurka protesta egiteko. Deialdia egin duten sindikatuak, beraz, garrantzitsuak dira gobernuentzat, hauteskundeetako emaitzetan eragina izan dezaketelako. Horregatik mobilizatzen dute gizartearen ezinegona (zenbat eta ez-popularagoak izan neurriak, orduan eta jarraipen handiagoa izango da), sarritan hauteskundeetatik gertu.

Deialdia egiten duten sindikatuen botere adierazpen handi bat dirudite. Dena ez da ordea dirudien modukoa; 2. Mundu Gerraren ondoren, estatuan integratutako sindikatuen ordezkagarritasuna gainbeheran dago, eta hura berreskuratzen saiatu behar dute; gatazken gorakadak ez du nahitaez ekarri haien ordezkagarritasuna handitzea, eta batzuek afiliazioa handitzen ari dela ikusten duten arren, joera beheranzkoa da. Ordezkagarritasun horrek negoziazio ahalmena ematen zien; beraz, ordezkagarritasun gutxiago, botere gutxiago.

Gainbehera hori aspaldikoa da; lehenik eta behin, sindikatu horiek “itun sozialak” deiturikoan hartu zuten parte. Itun horietan gobernuekin lan-kidetzan aritu ziren austeritate neurri jakin batzuk ezartzeko, negoziazioetan kontzesioak ematearen truke (adibidez, kaleratzea merkatzea, lanaren be-



hin-behinekotasuna mugatzearen truke). Baina, 2008ko atzeraldian eta 2009ko krisiaren ondoren, sindikatuen mobilizatzeko gaitasuna murriztuta zegoen, haien afiliazioa bezalaxe. Horrelako “arerio” baten aurrean, burgesiak ez zuen zertan haiekin kontatu aipatutako “itun sozialetarako”. Horren aurrean, ohikoagoak egin ziren greba orokorrak (kaleko mobilizazioak bilatzen dira horietan, ekonomia geldiaraztea baino gehiago), lantokietan greben kopurua jaisten ari zen bitartean.

Jane McAleveyk azaltzen duenez, 2008az geroztik dimentsio sinbolikoa da nagusi mendebaldeko grebetan (adibidez, *austeritatearen* aurkako grebak). Sintomak taktiken berrikuntza faltan antzematen dira, gero eta erritual itxura gehiago dute: eraginkorrak izatea bilatzen ez duten piketeak, kontsumoa geldiarazteko neurritz gorako obsesioa beste esparru ekonomiko erabakigarri batzuk albora utzita – hala nola, ekoizpena-, manifestazio-prozesioak... izan ohituragatik, izan ikusgarritasunaren aurrean eraginkortasuna bigarren mailan gelditzen delako, eta, beraz, berdín izatea zer ari garen egiten zerbait egiten ari garela dirudien bitartean.

Izan ere, maiz, taktika horiek politika parlamentarioaren menpe egoten dira. Bestela esanda, greba orokor batek talde politiko baten interes zehatzetarako balio dezake bere aurkarien – edo aliatuen – aurka. Rosa Luxemburgok aurreikusi zuen nondik nora joan zitekeen greba batzuen dimentsio *politikoa*: “Parlamentarismoaren menpeko masen greba, parlamentuaren gehigarri hutsa bihurtzen da”.

TAKTIKA BERRIAK

Greba langileen tresnarik nagusienetako bat da gaur egun ere, baina hedatzen ari diren taktikak ere be-

rrikusi beharko lirateke, are gehiago lanaren antolaketa maila globalean aldaketak jasaten ari denean: birlokalizazioak, makinizazioa, informatizazioa edo langile klasearen berrantolaketa. Lehen aipatu dugun ikusgarritasuna greba orokor batean gerta daitkeen funtsezko alderdi bati uko egitearen eskutik dator: lurraldearen gaineko langileen kontrola. Ekonomia bere osotasunean geldiarazteak esan nahi du bere dimentsio desberdinetan aurre egin behar zaiola, berehalako ekoizpenaren eremutik harago: botere ikaragarria da logistika, hornikuntza-kateak, salgaien fluxuak edo garraioak blokeatu edo etetea. Azken batean, egungo lanaren antolamendua, bere konplexutasun erraldoian, eta merkataritza zirkulazioaren alde ahula erakusten du. Hala erakusten dute logistikaren grebek Italian (Bologna, 2012, 2013) edo Frantziako trenbideetakoek (Châtillon, 2019).

Aztertu beharreko beste alderdi bat energia hornidura da. Greba orokor honetan, Frantziako langileek energia hornidura (nuklearra, erregaiarena) eten dute, edo 70eko hamarkadako *autoriduzione* italiarren praktika batzuk berrartu dituzte: argiaren tarifen prezioa jaitea, familia pobreak sare elektrikora berriz konektatzea... Aldi berean, adimen handiz baliatzen dute komisariak, enpresak edo intendentziak deskonektatzeko erabil dezaketen kontrola. Bi kasuetan – logistikan eta energian – langileen kontrola gauzatzen da lurralde mailan.

AZKEN GOGOETAK

1. Greba orokor “arrakastatsuenak”, proposatzen dituzten aldarrikapenak lortzen dituzten neurrian, politika jakin batzuen – edo horien multzoen – aurka daudenak dira, bereziki hauteskundeak iristear daudenean. Aitzitik, lorpen handiak aldarrikatzen





Manifestatzea, masa kritikoa sortzea, mediatikoki eragitea, ezer gutxirako balio dute lurraldean hedatutako botere erreal baten artikulazioa ordeztan badute

dituztenak, ezer ez lortzeko joera dute (“austeritatearen aurka”, “neoliberalismoaren aurka”, Grezian bezala). Kontua ez da soilik epe motzean posible diren eskarietara mugatzea, baizik eta kontziente izatea helburu horiek ez direla lortzen egun bakar bateko mobilizazio masiboekin, azkenaldiko gertaerak erakutsi duten bezala.

2. Grebak langileen batasunaren premisaren pean funtzionatu beharko luke. Horretarako, greba elkartasunetik eraiki behar da, zatiketak gaindituz. Ezer gutxirako balio du jada antolatuta daudenek grebak egitea proletalgoaren geruza ahuleneke parte hartzen ez badute. Borrokarako posizio onena duten sektoreek okerraren daudenei -kaleratze errazagoak, paperik gabekoak ... - bizkarrak zaindu behar lizkiekete, eta elkarrekin denboran irauteko gaitasuna duen egitura bat garatu behar lukete (horretarako oso baliagarriak lirateke erresistentzia kuxkak berreskuratzea).

3. Zentzu horretan, beharrezkoa izango da subjektu proletarioa lan eta enpresa esparrutik haragato artikulatzea (pentsiodunak, ikasleak, langabe-tuak, etxekoandreak ...), baina esparru horiei uko egin gabe, funtsezkoak baitira ekonomia geldiarazteko – eta, agian, esparru horien kontrola hartzen ikasi behar da, lurralde mailan—. Era berean, taktika berriek ezin dute aitzakia izan masak antolatzeko lanetik ihes egiteko. Argitu nahi nuke, halaber, lan-

gileen batasuna (alderdi kualitatiboa) eta elkarren artean artikulatzen ez diren aldarrikapenen batura soila (alderdi kuantitatiboa) ez direla gauza bera.

4. Greba orokorrak erradikaltasun kutsua du, eta horrek batzuetan zaildu egiten du bera ulertzea edo zuzenean ezkutatu egiten du bere gainbehera. Berriki hartu duen erritual aktibista izaerak bere eraginkortasunaren auzitik desbideratzen gaitu: manifestatzea, masa kritikoa sortzea, mediatikoki eragitea, ezer gutxirako balio dute lurraldean hedatutako botere erreal baten artikulazioa ordeztan badute. Horretarako, etsaia bere dimentsio osoan ulertu behar dugu, eta ekoizpenaren, banaketaren edo energia horniduraren esfera desberdinetan aurre egin, kontsumoaren esferarekiko obsesioa gaindituz.

5. Hala ere, gerta liteke berehalako arrakasta ez bilatzea. Azken batean, gauza bat da mahai gainean jartzen dena, eta beste gauza bat dira benetako interesak: ordezkagarritasunaren (tendentziala) krisiari aurre egitea, sindikatuen oinarri soziala zabaltzea eta haien lidergo politikoa eta hegemonia ezartzea, haien artean dagoen lehiaren barruan. Bestela esanda, ordezkagarritasunaren krisiaren ondorioz baztertutak gelditzen ari diren itun soziala berrartzen saiatzea, politika parlamentarioaren osagarri gisa balio duten bitartean; izan ere, politika horren mende daude, eta hor jartzen dute benetan garrantzia. /

Argitaraturik
2020KO OTSAILAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa eta Erredakzioa
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER @GEDARLANGILEKZ
INSTAGRAM @GEDAR.EUS
FACEBOOK @GEDAR.EUS

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
GR 1731-2019

Lizentzia



arteka

haustura bat
inertzian

**ALDIZKARIA
HILERO JASO**
**GEDAR.EUS WEB
ORRIAN HARPIDETUZ**

GEDAR
LANGILE
KAZETA



arteka